



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko ekainaren 21a

91. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa. Aurkeztutako zuzenketak (33. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea (37. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da giza baliabideak eta baliabide materialak areagotu ditzan, aniztasunarekiko arreta bultzatzen jarraitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (38. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Iruñerriko Mankomunitatea sortu izanaren egokitasuna aitortzen da, eta orobat aitortzen da erabiltzaile guztiei ematen dien zerbitzua. Osoko Bilkurak onetsia (38. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da azterlan bat egin dezan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Lanbide Heziketaren arteko harremanak argituko dituena. Osoko Bilkurak onetsia (39. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, jakiteko zertan diren hertsadura-teknikak Nafarroako Foru Komunitatean halakoak erabiltzen dituzten zentroetan. Osoko Bilkurak onetsia (39. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ijitoen herriaren historia eta kultura sar ditzan Nafarroako hezkuntza-curriculumean, eta Espainiako Gobernua, berriz, jaso ditzan bere eskumenen esparruan. Osoko Bilkurak onetsia (40. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea alda dezan. Osoko Bilkurak onetsia (40. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabaki du hezkuntza-erkidegoa, talde parlamentarioak eta Nafarroako Gobernua elkartuko dituen lan-mahai bat eratu dadin, Irakasleen Babeserako Lege bat taxutzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (41. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babeserako Lege bat Hezkuntza Sozialari. Eledunen Batzarrak onetsia (41. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu ETA banda terroristak orain dela 30 urte Hipercorren egindako sarraskia. Eledunen Batzarrak onetsia (41. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bizikidetasunarekiko, justiziarekiko eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuarekiko bere konpromiso irmoa adierazten baitu, eta Altsasuko gazteen kasuaren inguruko gertakarien bilakaerarekin kezkatuta dagoela adierazten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (42. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baitu Kontuen Ganbera. Eledunen Batzarrak onetsia (42. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Legea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko ekainaren 8an egindako Osoko Bilkuran, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko Foru Legea, onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Foru Legea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa.**

#### ATARIKOA

I

Foru lege honen helburua da pertsona lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI+) eskubideak garatu eta bermatzea, eta pertsona horiei diskriminazio eta bortizkeria egoerak ekiditea, Nafarroan bestelakotasun afektibo-sexuala askatasun osoz bizi ahal izatea bermatzeko.

LGTBI+ akronimoak erreferentzia egiten die foru lege honen xede diren kolektibo guztiei, eta legearen esparruan sartzen ditu, halaber, sexu-joera, genero-adierazpena eta sexu- edo genero-identitatea direla-eta diskriminatuak izan daitezkeen beste pertsona batzuk.

Foru lege hau gehitzen zaio gure estatuan eta gure erkidegoan bultzatu diren lege, arau, ekintza eta politiken multzoari, zeinek xede baitute bermatzea pertsona guztiek bereizketarik gabe gozatu ahal izatea giza eskubideak, barne direla legearen aurreko tratu-berdintasunerako eskubidea eta sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurka babestua izateko eskubidea.

Foru legeak LGTBI+ kolektiboen aldarrikapen historikoa biltzen du. Izan ere, azken urteotan kolektibo horrek lehen ukatzen zitzaion aitopren

sozial eta politiko bat lortu du, baina normalizazio eta berdintasun osora iristeko asko falta da oraindik.

Foru erkidego, estatu nahiz Europa mailako marko juridiko berriak LGTBI+ pertsonetikiko ikuspegi sozialaren aldaketa bat ahalbidetu du; neurri handian, entitateek, talde feministek, LGTBI+ kolektiboek eta hainbat pertsonak egin duten sentibilizazio-, informazio- eta dibulgazio-lan etengabeari esker. Abiapuntu horretatik sortzen diren arrazoi batzuek egiten dute beharrezkoa foru lege hau, zeinak bilatzen duen harremanetarako erreferentzia berriak eraikitzea, berdintasunean eta errespetuan, bai eta bestelakotasunen aintzatespen positiboan ere, oinarrituak.

Nafarroari dagokionez, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, 44.18 artikuluan, eskumen osoa ezartzen du berdintasunerako politiken arloan. Ildo horretatik, eta eskumen horren barruan, garatu zen azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea, Pertsona transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Gure Foru Komunitatearen aurre-rapen handi bat, zalantzarik gabe, baina gaur egun aski ez dena.

Estatuari dagokionez, berdintasuna bitan arautzen du Konstituzioak, I. tituluaren 14. artikuluan: "Espainiarrak berdinarak dira legearen aurrean; debeku da, bada, inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta"; eta 9.2 artikuluan: "Botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen; askatasun eta berdintasun xede hori galarazten edo osotara garatzea zailtzen duten oztopoak kentzea, eta herritar guztiei aukera egokia ematea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko."

Beraz, botere publikoei dagokie bai neurri positiboak hartzea, bai herritar guztien eskubideak bermatzeko neurriak hartzea ere. Konstituzioaren aginduak aplikatuz, Espainiako legediak bilakaera bat izan du, sexuen arteko berdintasunaren alorrean izandako zenbait aldaketa eta aurrerapen jasotzeko, bai eta, geroago, beste alderdi batzuk, izatezko bikoteei dagozkienak, horren barne direla sexu bereko pertsonen izatezko bikoteak, edo sexu bereko pertsonen arteko ezkontzei dagozkienak, eta figura juridiko horiei lotutako eskubideak erabiltzeari dagozkionak ere.

2005eko ekainaren 30ean Kode Zibilaren aldaketa garrantzitsu eta sakon bat onetsi zen, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza baimentzen zuena, eta horren ondorioz, munta handiko beste eskubide batzuk ere bai, hala nola adopzioa batera egitea, oinordetza eta pentsioa. Legea 2005eko uztailaren 2an argitaratu zen, halatan Espainia munduko hirugarren herria bihurturik berdintasunezko ezkontza legeztatzen, Herbehereen eta Belgikaren ondotik, eta munduko lehen herria erabat legeztatzen, garai hartan herbehereetar herritartasuna zuten umeak soilik adoptatzea baimentzen zelako Herbehereetan, eta Belgikak ez zielako adoptatzen uzten bikote homosexual ezkonduak.

2006ko maiatzaren 26an, Espainiako gobernuak aldatu egin zuen lagundutako ugalketari buruzko legea, ama ez-biologikoari aukera emate aldera bi emakumeren arteko ezkontzan jaiotako umeak juridikoki seme-alabatzat aitortzeko.

Martxoaren 15eko 3/2007 Legea, Erregistro Zibilean Pertsonen sexuaren aipamena zuzentzea arautzen duena, aurrerapauso bat izan zen adin nagusiko transexualen eskubideen indartzeari begira, modua ematen zielako erregistroan egina zeukaten sexu-esleipena aldatzeko beren identitatearen aurkakoa zenean, "sexu-berresleipen"eko kirurgiarik egin behar izan gabe eta aurretiazko prozedura judizialik gabe.

Gainera, garrantzitsuak izan dira abenduaren 30eko 62/2003 Legea, Zerga, Administrazio nahiz Gizarte arloko neurriei buruzkoa (27-43 artikulua), eta azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodeari buruzkoa.

Europaren esparruari dagokionez, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 21. artikulua diskriminazio oro debekatzen du, eta bereziki sexua, arraza, kolorea, jatorri etniko zein soziala, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa zein sinesteak, iritzi politikoak zein beste edonola-koak, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina nahiz sexu-joera direla-eta egindako diskriminazioak.

Azpimarratzekoak dira, halaber, Europako Parlamentuak 1994ko otsailaren 8an, 2006ko urtarrilaren 18an eta 2012ko maiatzaren 24an onetsitako ebazpenak, gay eta lesbianen eskubide berdintasunari eta diskriminazioaren eta homofobiaren aurkako borrokari buruzkoak, eta, era berean, Europako Parlamentuak 2014ko otsailaren 4an onetsitako ebazpena, homofobiaren eta sexu-joera nahiz genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurkako Europar Batasunaren bide-orriari buruzkoa eta Kontseiluaren 2000/78/EE Zuzentaraua, enpleguan eta lanean tratu-berdintasunerako esparru orokor bat ezartzeari buruzkoa; halaber, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 21. artikulua, zeinaren bidez Europar Batasuneko oinarrizko eskubide gisa aintzatesten baita, besteak beste, sexu-joeragatiko diskriminazioaren debekua.

Erakunde eta organismo askok eskatzen dute transexualitatea despatologiza dadila. Hartara, esate baterako, Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarrak, 2015eko apirilaren 22ko Ebazpenean, estatuak premiatu zituen nazio mailan erabiltzen diren gaixotasunen sailkapenak aldatzera, eta nazioarteko sailkapenen aldaketa proposatzera, bermatzearen pertsona transexualak, adingabeak barne, ez direla gaixo mentalizat hartuko, eta aldi berean segurtatuz behar diren tratamendu medikoetarako sarbidea dutela, estigmatizaziorik gabe.

Azkenik, nazioartearen esparruan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 2. Artikuluak hauxe dio: «Gizaki orori dagozkio Adierazpen honetan aldarrikatutako eskubide eta askatasun guztiak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarte-jatorria, kokapen ekonomikoa, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik».

Yogyakartako printzipioek, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea sexu-joeraren eta genero-identitatearen arloetako aferei aplikatzeari buruzkoek, LGBTBI+ pertsonen giza eskubideen babesa bermatzeko politikak eskatzen dizkiete nazioei.

Giza Eskubideen Kontseiluaren 2011ko 17/19 Ebazpenak, "giza eskubideen, sexu-joeraren eta genero-identitatearen" gainekoak, formalki gaitzesten du sexu-joeragatik eta genero-identiteagatik munduko edozein tokitan izandako indarkeria- edo diskriminazio-ekintza oro.

Beraz, esan daiteke sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminaziorik ez egitea, edonoren bizitzaren hainbat alderdi sentikorretan eragina egon baitaiteke,

jadanik arau askotan jasota dagoela. Gai espezifikoko foru lege honek ahalbidetuko du LGTBI+ arloan arau-esparrua zabalagotzea, eta lagunduko du diskriminazioa murrizten eta herritarren artean berdintasun- eta errespetu-baloreak sustatzen; gainera, edozein esparrutan sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko erasoen biktima izan diren pertsona oro babestea du xede, bermea ezarriz gorroto-delituak ez dezaizen izan inolako estaldurarik zuzenbidearen, erakundearen, politikaren edo gizartearen aldetik.

LGTBI+ pertsonentzat, eskubideen arloko bila-kaera etorri da gizarteak gai hori ulertzeko eran izan duen aldaketagatik, nahiz eta aldaketa graduala eta desorekatua den. Eta, gure gizartean izan den aurrerapena argia eta agerikoa bada ere, oraindik badaude ezkutuko gorroto eta aurreiritziak LGTBI+ pertsonetik. Horiek horrela, homofobia, lesbofobia, bifobia eta transfobia gure artean daude oraindik.

Espainiako gorroto-delituei buruzko txostenak sailkapenaren gailurrean jartzen ditu biktimaren sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearekin lotutako liskarrak, arrazakeriaren edo xenofobiaren aurretik.

Azken urteetan, zenbait txosten eta azterlan agertu dira bai maila autonomikoan, bai Estatukoan eta Europakoan ere, hezkuntzaren esparruko sexu- eta afektibitate- nahiz genero-bestelakotasunaren egoerari buruz. Azterlan egiazki kezgarriak aurkeztu dira LGTBI+ nerabe eta gazteen eskola-jazarpenari buruz eta suizidio-arriskuari buruz.

Parekoen arteko tratu txarrak biktimen eskubideei eraso egiten dietela da ustea; zehazki, haien identitate fisiko edo psikikoari. Horrenbestez, ez da gai pribatu bat, baizik eta hezkuntzako eta publikoak.

Lehen adierazle ofizialak agertzen hasi badira ere, dauden estatistikak urriak dira, eta guztiak pentsarazten du kasu errealak estatistiketan agertzen direnak baino gehiago direla; alde horretatik, foru lege honen helburuetako bat da azterlanak sustatzea egoeraren datu errealak eskuratzeko, eta datu-bilketaren berme estatistikoa arautzea.

## II

Foru lege honek atariko titulu bat, lau titulu, zazpi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu.

Atariko tituluak, xedapen orokorrei buruzkoa baita, ezartzen ditu legearen helburuak eta espa-

rrua, legeak babesten dituen pertsonen definizioa, zeinetan azpimarratzen den adingabeen egoera, eta Administrazioaren printzipio zuzentzaileak babestutako pertsonen tratamenduari dagokionez. Foru legeak ezarritako helburuetan dago printzipioak, neurriak eta prozedurak arautzea, LGTBI+ pertsonen eskubideak eta egiazko berdintasun eraginkorra bermatzekoak; halatan, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazio ororen prebentzioa, zuzenketa eta ezabaketa eginen dira. Foru legeak eskubidearen subjektutzat jotzen ditu Erkidegoan bizi diren pertsona guztiak, haien nazionalitatea kontuan hartu gabe; izan ere, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren gaineko arau baten abiapuntua ezin da izan diskriminazioa jasaten dutenen artean bazterketak edo bereizketak ezartzea. Bestetik, arauaren aginduen hartzaile dira Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean dauden edo jarduten duten pertsona fisiko nahiz juridiko, publiko nahiz pribatu guztiak, horien egoitza edo bizilekua edozein dela.

Azpimarratzekoa da adingabeen babesari dagokionez Nafarroako Foru Komunitateak arau honen bidez bere gain hartzen duen konpromisoa. Askotan helduek diskriminazioa edo indarkeria pairatu dute, edo ez zaie arretarik eman, baina utzikeria hori bereziki larria da adingabeen kasuan, ezen, haien berezko babesgabetasunagatik eta garapen-mailagatik, modu larriagoan pairatzen dute haien identitatearen aitortzerik eza, edo medikuntza-alorrean haien afirmazio-beharrizane-kiko desaxola egotea. Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak agintzen duena betetzeko (Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatzea), eta irizpide zuzendaria izanik adingabearena den interes gorenari begiratzea, orain foru legeak bere babes eskaintzen die haiei eta haien tutoreei bazterkeria ororen aurka, arreta osoa haien osasun-beharrizanei, eta babes eskaintza-sisteman.

I. tituluan antolaketa administratiboa lantzen da. Nafarroan LGTBI+ politikez arduratuko diren zenbait erakunderen eraketa eta horien eginkizunak ezartzen dira; halaber, Nafarroako Delituaren Biktimei Laguntzeko oraingo atalarentzako betebeharra, profesional espezializatuak eskuratzekoa, gorroto-delituei edo sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazio delituei aurre egitearen arlokoak.

II. tituluaren gaian politika publikoak jorratzen dira, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik LGTBI+ pertsonak diskriminatutakoak ez izateko eta haien berdintasun soziala

bermatzekoak. Tituluan printzipio orokorrak ezarzen dira gizarte, osasun, familia, hezkuntza, lan, gazteria, kultura, kirol eta garapenerako lankidetzaren arloetako tratamenduari dagokionez, eta, halaber, komunikazioaren eta poliziaren arloko printzipioak eta neurriak.

I. kapituluan profesionalen prestakuntza eta sentibilizazioa arautzen dira, beren lanaldiko uneren batean sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazioarekin lotutako kasu bati aurre egin behar diotenerako, bai eta kasu horretako balizko esku-hartzea ere.

II. kapituluan, gizarte arloko neurriei buruzkoan, laguntza eta prebentzio neurri eraginkorrak sustatzen dira, ahultasun egoeran dauden nerabe eta gazteentzat eta diskriminazio anizkoitzak jasan ditzaketen pertsonentzat. Era berean, gizarte zerbitzuetan LGTBI+ pertsonetikiko errespetua sustatzeko jarduketak.

Osasun arloan, III. kapituluan arautzen dira GIBari eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuei begira nahitaezko diren sentibilizazioa eta prebentzioa; berariazko osasun-politiken azterketa, ikerketa eta garapena, bai eta identitate transexual eta transgeneroekin lotutako tratamenduak edo laguntza bidezko ugalketa tekniken eskuraztea, beste neurri batzuen artean, osasun arretan inolako diskriminaziorik egon ez dadin sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatea direla-eta.

IV. kapituluak, familia arloko neurriei buruzkoak, familia bestelakotasunaren babesa eta garapena jorratzen du, familia arloan egon daitezkeen indarkeria kasuak ere kontuan hartuz.

V. kapituluan, hezkuntza arloari buruzkoan, foru lege honek neurriak bultzatzen ditu, hezkuntza sisteman sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen aniztasunaren errespetu gauzatua lortzeko, eta hezkuntza maila guztietan sexu- edo genero-identitatearen adierazpen ezberdinak onartuak izateko, halatan estereotipo eta jokaera sexistak gainditu ahal izateko. Xede horrekin, Nafarroari dagozkion eskumenen esparruan sustatzen du eskola curriculumean eta irakaskuntza- edo bizikidetzeta-planetan txerta daitezen prestakuntzarako eta sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen aniztasunaren errespeturako neurriak hezkuntza maila guztietan, eta, halaber, sexu- edo genero-identitateari arreta emateko neurriak ezartzea, irakasleek eta zerbitzuetako langileek gida bat izan dezaten hezkuntza komunitateari arreta ematerakoan.

VI. kapituluan, lan arloari eta enpresen gizarte-erantzukizunaren arloari buruzkoan, konpromiso bat ezartzen da, neurri eraginkorrak sortzeko enpleguan diskriminaziorik eza eta berdintasuna sustatze aldera, eta korporazioen gizarte-erantzukizuneko estrategietan.

VII. kapituluan gazteria arloko neurriak arautzen dira. Mekanismoak lantzen dira garapen pertsonala babestu eta sustatzeko noiz eta laguntza-premia berezia duen etapa batean, gaztaroan, alegia, kasu guztietan errespetua eta arreta egokia bermatuz.

VIII. kapituluan, aisia, kultura eta kirol arloetako neurrietan, kirol inklusiboaren kultura eta jarduera sustatzen dira, eta bilatzen da, Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion eskumenen barruan, LGTBI+ pertsonak bereizteko arauak edo baztertzeko mekanismoak desagerraraztea.

IX. kapituluan, garapenerako nazioarteko lankidetzarako neurriei buruzkoan, gure Erkidegoaren konpromisoa adierazten da, beraien sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik jazarpena, indarkeria edo kriminalizazioa jasaten duten pertsonen bizitzarako, berdintasunerako eta askatasunerako eskubideen aldekoa, aipatu eskubideak ukatuak diren edo kontuan hartzen ez diren herrietan.

X. kapituluan, komunikazio arloko neurriei dagokienez, eta foru erkidegoaren eskumenen esparruan, lantzen da gizarteratzearen eta sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearekiko errespetuaren gaineko kontzientziazioa, dibulgazioa eta transmisioa sustatzea, kolektibo horrek estereotiporik gabeko tratua izan dezan laguntzeko.

XI. kapituluan, polizia arloko neurriei buruzkoan, asmoa da segurtasun indarretan protokolo bat sustatzea sexu- edo genero-identitateari arreta emateko, bereziki bideratua gorroto-delituaren biktimek pairatzen dituzten ondorioak arintzera.

III. titulua berariaz eskainita dago pertsona transexual, transgenero eta intersexualei, historian zehar pairatu duten eskubide-gabezia dela-eta. Foru lege honek pertsona batek legezko sexua ondorio guztietarako aldatzeko duen borondatea aitortu ez ezik, orobat aitortu behar du pertsona transexualek badutela barru-barruko beharrezana, askatasunez adierazten denean, tratu mediko egokia jasotzeko, hartutako sexura fisikoki ahalik eta gehien gerturatuko dituen.

Horrekin lotuta, pertsona transexualen osasuna zaintzeko laguntza integralak psikologiaren eta medikuntzaren arloan zehaztutako prozedura mul-



tzo bat biltzen du, pertsona transexualak lehen eta bigarren mailako sexu-ezaugarriak bere genero-identitatea egokitu ahal izateko, kasuaren arabera, kontuan hartuta, agerikoa baita, pertsona transexualen artean askotariko jokamolde eta erantzunak izaten direla.

Foru lege honetan, gainera, adingabe transexualen eta haien eskubideen berariazko aitorpena egiten da.

IV. tituluak, "LGTBI+ pertsonen egiazko berdintasun gauzatua bermatzeko neurriak" izenekoak, arautzen ditu kontratazio administratiboan, dirulaguntzak ematean eta funtzionarioen eta langile publikoen prestakuntzan aplikatzekoak diren printzipioak, eta, halaber, konpromiso bat jasotzen du, etorkizunean Erkidegoko arauetan kontuan hartzekoa arau horiek nolako eragina izan dezaketen sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazioari dagozkion kontuetan. Erkidego honetako prozedura administratiboari begira, orobat ezartzen du "prozedurako interesdun" izaera, eta, halaber, kargutik mugiarazteko, kentzeko eta kalte-ordaina emateko neurriak eta frogaren karga alderantzizatzeko aukera, diskriminazioaren frogaren zantzua erakusten duten kasuetan. Gainera, zehapen araubide bat ezartzen du; gure Erkidegoak hautatu du bere aginduak ez daitezen asmo-adierazpen izan, eta beste zehapen arlo batzuk eta zigor arloaren lehentasuna errespetatuz, arau-hauste eta zehapen katalogo bat ezartzen du jokaera bereziki larrietarako eta bake sozialaren eta pertsonen foru legeak babesten dizkien eskubideen aurkakoetarako. Zehapen horiek, adierazpen larrietan, ekar dezakete kontratatze edo Erkidego honen funts publikoetatik laguntzak jasotzeko desgaitzua, diskriminaziozko jokabide bereziki larria izan edo arau-hausteetan berrerortzen direnentzat.

Araua bukatzen da bere ezarpen eraginkorren eta erregelamenduzko garapenaren gaineko xedapenekin, hemen aipatzen diren eskubideak ahalik eta azkarren ezartzeko eta eraginkortasuna izan dezaten.

## **ATARIKO TITULUA** **Xedapen orokorrak**

### **1. artikulua.** Foru legearen xedea.

1. Foru lege honen xedea da printzipioak, baliabideak eta neurriak ezartzea eta arautzea, LGTBI+ pertsonen eskubideak eta benetako berdintasun gauzatua erabat bermatzeko, bidea izanik sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazio ororen prebentzioa, zuzenketa eta deuseztapena, Nafarroako

roako Gobernuaren eta toki entitateen eskumenekoak diren esparru publiko zein pribatuetan.

2. LGTBI+ pertsonen berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea, 1. apartatuan aipatutakoa, eraginkor bihurtze aldera foru lege honetan ezartzen diren neurriak ondoko hauei dagozkie:

a) Bizitza sozialeko edozein arlori, eta bereziki eremu zibilari, lanekoari eta sozialari, eta osasunari, hezkuntzari, ekonomiari, kulturari eta arlo publikoari eta instituzionalari, oro har.

b) Bizitzaren etapa guztiei eta horren garapeneko gorabehera guztiei, hala nola egoera zibila aldatzea, familia bat eratzea, gaixotasun bat, ezgaitzea, askatasunaz gabetzea edo heriotza edo beste edozein inguruabar.

### **2. artikulua.** Helburua.

Foru lege honen helburua da baldintzak ezartzea LGTBI+ pertsonen eta horiek osatzen dituzten taldeen eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen; haiei bizitza sozialaren eta instituzionalaren arlo guztietako parte-hartzea eta ordezkariak erraztea; pertsona horiei buruzko pertzepzio sozial eta instituzionalean eragin negatiboa duten estereotipoak gainditzen laguntzea; eta neurri zehatzak ezartzea gizarte bidezkoago bat, librea, lortzeko, oinarritua LGTBI+ pertsonentzako tratu- eta aukera-berdintasunean eta aniztasuna balio erantsi gisa onartzean.

**3. artikulua.** Aplikazio esparrua eta betetze bermea.

1. Foru lege hau aplikatuko zaio, Foru Komunitatearen esparruan, edozein pertsona fisiko edo juridikori, zuzenbide publiko edo pribatukoa izan, edozein dela ere haren egoera administratibo edo pertsonala.

2. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako toki entitateek eta haien mendeko edo haiekin lotuta dagoen edozein entitatek, zuzenbide publiko zein pribatukoak izan, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, foru legea betetzen dela bermatuko dute, eta eraginkorra izan dadin behar diren baldintzak sustatuko dituzte, zeinek bere eskumenen esparruan. Ildo horretatik, sexu-joerari, genero-adierazpenari eta sexu- edo genero-identitateari buruzko ekintza positiboak lagunduko dituzte, eta, halaber, Erkidegoko LGTBI+ asoziazionismoari eta dituen proiektuei sostengua emanen diete.

3. Foru lege hau aplikatuko da LGTBI+ pertsonen bizitzako edozein aldi eta arlotan.

#### 4. artikulua. Aitorturiko printzipio eta eskubideak.

Foru lege honek honako oinarrizko printzipioak eta aitorturiko eskubideak ditu abiaburu, zeinek arautuko baitute legearen aplikazio eremuko pertsona fisiko nahiz juridikoen, publiko nahiz pribatuen, jarduketa:

1. Giza eskubideak gozatzeko eskubidearen aitortpena: pertsona guztiek dute, edozein dela ere haien sexu-joera, genero-adierazpena eta sexu-edo genero-identitatea, oinarrizko eskubide guztiak eta giza eskubide unibertsalak bete-betean gozatzeko eskubidea.

a) Berdintasuna eta diskriminaziorik eza: behar da zuzeneko nahiz zeharkako diskriminazio-egintza oro, ziotzat sexu-joera, genero-adierazpena eta sexu-edo genero-identitatea edo familia-talde bateko kide izatea hartzen duena. Foru legeak babes eraginkorra bermatuko du diskriminazio ororen aurrean.

b) Nortasunaren aitortpena: pertsona orok du eskubidea bere buruarekiko autodefinizio bat eraikitzeke, bere gorputzari, sexuari, generoari eta sexu-joerari dagokienez, inongo azterketa psikologiko edo medikorik egin behar izan gabe. Nork bere buruarekiko definitzen dituen sexu-joera, genero-adierazpena eta sexu-edo genero-identitatea funtsezkoak dira bere nortasunarentzat eta haiek libreki garatzeko eskubidea du, eta oinarrizko alderdiak dira autodeterminazioan, duintasunean eta askatasunean. Inor ez da hertsatua izan bere sexu-joera, genero-adierazpena eta sexu-edo genero-identitatea ezkatatu, deuseztatu edo ukatzera.

c) Prebentzioa: beharrezkoak diren prebentzio neurriak hartuko dira jokaera homofobiko, lesbofobiko, bifobiko, transfobiko edo interfobikoak ekiditeko, eta LGTBI+ pertsonen duten berdintasunerako, ikusgaitasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea urratzera eraman dezaketen egoeren antzemate goiztiarrerako.

d) Osotasun fisiko eta segurtasun pertsonala: babes eraginkorra bermatuko da bizitzaren, osotasun fisikoaren, osotasun psikikoaren eta pertsonaren ohorearen edo duintasunaren aurka zuzenean edo zeharka sexu-joeragatik, genero-identitateagatik, genero-adierazpenagatik eta sexu-edo genero-identitatearengatik, gorputz-bestelakotasunagatik edo familia-taldeketasunagatik eginiko edozein eraso-edo indarkeria-egintzaren aurrean.

e) Babesa errepresalien aurrean: beharrezkoak diren neurriak hartuko dira pertsona guztiei babes

eraginkorra emateko, akzio judizial edo administratibo bat baliatzearen edo horretan parte hartzearen ondoriozko erreakzio gisako tratu kaltegarri izan litekeen edozein jarduketa edo erabakiren aurrean.

f) Pribatutasuna: pertsona guztiek dute pribatutasunerako eskubidea, haien bizitza pribatuan nahierako edo legearen aurkako esku-sartzerik jasan gabe, eta barne harturik norberaren sexu-joera, genero-adierazpen edo sexu-edo genero-identitatearen berri emateko edo ez emateko erabakia hartzeko eskubidea. Beharrezkoak diren neurri administratiboak hartuko dira, zerbitzu eta prestazio publiko eta pribatuak jasotzen dituzten pertsonen gaineko aipuetan sexu-edo genero-identitate adierazia azal dadin, kasuko pertsonaren duintasuna eta pribatutasuna errespetatuz.

g) Osasun arloko tratamendu egokiaren bermea: pertsona guztiek dute osasun arloan izan daitekeen maila handieneko babesa edukitzeko eskubidea. Ez da zilegi izan inor bultzatzea, eta are gutxiago behartzea, tratamendu, prozedura mediko edo azterketa psikologiko bat egitera, haren sexu edo genero-autodeterminaziorako askatasuna murrizten duena. Osasuneko profesional guztiak, edo osasungintzako arloan zerbitzu ematen dutenak, behartuta daude tratu-berdintasuna LGTBI+ pertsonen ere aplikatzera.

Halaber, profesionalen prestakuntza espezializatua eta behar den gaikuntza zaintzea, bai eta erabiltzaileei informazioa egoki transmititzea ere.

2. Pertsona transexual adingabeek eskubidea dute Nafarroako Foru Komunitatearengandik beharrezko diren babesa eta arreta jasotzeko, beren garapen integrala sustatze aldera, familian eta gizartearen integrazteko jarduketa eraginkorren bitartez, betiere osasun-administrazioak, lan-administrazioak, gizarte zerbitzuek eta hezkuntza-administrazioak koordinatutako programen esparruan; adingabeen familiek eskubidea dute esparru horietan guztietan arreta jasotzeko, haien garapeneraren akonpainamendu zuzena egin ahal dezaten, kolektibo horren ahultasun berezia dela eta, zioen azalpenaren II. ataleko hirugarren paragrafoak adierazten duen bezala.

3. Izaera integrala eta arloartekoa ematea eskubideen eraginkortasuna eta berdintasuna bermatzeko hartzen diren neurriak.

4. Erreparatzea LGTBI+ pertsonen aurkitzen ahal dituzten diskriminazio-egoera ezberdinei, kontuan hartuz zer interakzio suerta daitezkeen pertsona hauen eta diskriminazio-eragile izan dai-



tekeen edozein inguruabar pertsonal edo sozialen artean.

5. Familia-egitatearen heterogeneotasunaren aitortza jasotzea Nafarroako zuzenbide publiko zein pribatuan, jarduera judizial eta administratiboa eta administrazio publikoaren jarduketaren guztietan.

6. Administrazioen arteko lankidetzaren bermatzea.

7. Eskubideen eraginkortasuna: Nafarroako administrazio publikoek, dagozkien eskumenen esparruan, politikak abiaraziko dituzte berdintasuna, ikusgaitasuna eta sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu-identitate edo -generoagatiko diskriminaziorik eza sustatzeko, tokiko polizien eta Foruzaingoaren kidegoetan sartzeari eta kide horien trebakuntza eta igoera profesionalari dago kienez, bai eta sexu-joera, genero-adierazpena eta sexu- edo genero-identitatea edo familia-taldekotatasuna direla-eta biktima izan direnentzako laguntza sustatzeko ere.

Askatasunaz gabetzeko esparruetan suertatzen diren inguruabar bereziak aintzat hartuta, Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoek, beren eskumenen esparruan, arreta eta laguntza berezia sustatuko dute espetxe horietan dauden LGTBI+ pertsonentzat, berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatze aldera.

Halaber, botere publikoek eta funtzio publikoaren edo enpresa pribatuaren esparruan zerbitzua ematen duen edonork berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa egiazki betetzea sustatu eta bermatuko dute, behar diren ekintza positibo guztiak eginez, segurtasun indar eta kidegoei eta organo administratibo eskudunari salaketak aurkeztea barne, halatan deuseztatze aldera sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko edo familia-taldekotatasunagatiko diskriminazio-egoerak.

8. Bestelakotasun afektibo eta sexualaren gaineko azterlana eta ikerketa bultzatzea, LGTBI+ pertsonen aurkako diskriminazioa eta indarkeria desagerrarazteko balioko dutenak.

9. Neurriak ezartzea, LGTBI+ pertsonen eskubideak eta diskriminaziorik eza gauzatzeko alderan egiten duten entitateak sustatzeko.

10. Burutzen diren jarduketak eta hartzen diren neurriak egokitzea udalerritikien eta landa eremuaren beharrezkoak.

11. Errekurtsoetarako eta ordain gauzatueta-ko eskubidea: LGTBI+ pertsonen bermatu egiten zaie sexu-joera, genero-adierazpena eta sexu edo

genero-identitatea direla-eta pairatu duten eskubide-urraketaren ordaina.

## 5. artikulua. Definizioak.

Foru lege honen ondorioetarako, aintzat hartuko dira honako definizio hauek:

a) LGTBI+: Pertsona lesbianak, gaiak, bisexuak, transexualak, transgeneroak, intersexualak, eta sexu- edo/eta genero-identitateagatiko, sexu-joeragatiko edo/eta genero-adierazpenagatiko beste gutxiengo batzuk.

b) Sexu-joera: pertsona batek besteekiko duen desio erotikoa, sexual edo/eta afektiboaren joera.

c) Sexu-identitatea: sexu batekoa izatearen kontzientzia.

d) Genero-identitatea: gizon eta emakume kategorien inguruan definitutako gizatalde batekoa izatearen sentimendua, horietako batekin identifikatuz (bitarra), biekkin identifikatuz (ez-bitarra) eta bakararekin ere ez identifikatuz (ageneroa).

e) Genero-adierazpena: pertsona batek bere sexu-identitatea edo/eta genero identitatea gizar-teari begira kanporatzeko duen modua, bere estetikaren, jokabideen, jarreraren, adierazpenen eta abarren arabera.

f) Pertsona transexuala: sentitzen duen sexua jaiotzean genitalen arabera esleitu ziotenaz beste bat duen pertsona.

g) Pertsona transgeneroa: pertsona baten generoaren identitatea bat ez datorrenean jaiotzean genitalen arabera esleitu ziotenarekin, eta nahitaez lerrotzekin ez dena gizonaren eta emakumearen kontzeptu bitarrekin.

h) Emakume lesbiana: beste emakume batzuekiko desio erotikoa, sexual edo/eta afektiboa sentitzen duen emakumea.

i) Gizon gaya: beste gizonekiko desio erotikoa, sexual edo/eta afektiboa sentitzen duen gizona.

j) Pertsona bisexuala: beste pertsona batzuekiko desio erotikoa, sexual edo/eta afektiboa sentitzen duen pertsona, horien sexu edo generoa edozein dela ere.

k) Pertsona intersexuala: gizon eta emakume kontzeptu bitar tipikoei egokitzen ez zaizkien ezaguri sexualekin (horren barne, genitalak, gonadak eta patroikromosomikoak) jaiotzean pertsona.

l) Zuzeneko diskriminazioa: Pertsona baten egoera, pertsona horrek tratatu okerragoa jasotzen duenean, jasotzen duenean edo jasotzeko dezentzian antzekoa edo konparagarria den egoera batean dagoen beste pertsona batek baino, sexu-joera,

genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitate edo familia-taldekotasunagatik.

m) Zeharkako diskriminazioa: Egoera bat, zein itxuraz neutroa den xedapen, irizpide, interpretazio edo jokabide batek desabantaila zehatz bat sor dezakeen pertsona batzuentzat, haien sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatea direla-eta.

n) Diskriminazio anizkoitza: diskriminazio anizkoitza gertatzen da pertsona batek sexu-joera, genero-identitate, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitate edo familia-taldekotasunagatik diskriminazioaz gain diskriminazioa jasaten duenean Europako, estatuko edo foru erkidegoko legeetan jasotako beste arrazoi batengatik.

ñ) Loturagatik diskriminazioa: egoera bat, zein pertsona batek diskriminazioa jasaten duen LGTBI+ pertsona, talde edo familia batekin harremana edukitzearen ondorioz.

o) Okerragatik diskriminazioa: egoera bat, zein pertsona batek edo pertsona talde batek sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik diskriminazioa jasaten duten okerreko antzemate baten ondorioz.

p) Diskriminatzeko agindua: edozein jarraibide, ondorio gisa dakarrena sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa.

q) Diskriminaziozko jazarpena: diskriminaziozko jazarpena izanen da edozein jokabide edo portaera, asmozat edo ondoriotzat duena duintasunari eraso egitea eta ingurune larderiatsu, etsaitasunezko, apalesgarri, iraingarri edo segregatua sortzea, zio gisa harturik sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatea edo familia-taldekotasuna.

r) Diskriminaziozko errepresalia: pertsona bati ematen zaion kaltezkotratua edo heltzen zaion ondorio negatiboa, jasanarazten edo jasanarazi zaion diskriminazioa edo jazarpena ekidin, gutxitu edo salatze aldera edonolako kexa, erreklamazio, salaketa, demanda edo errekurso aurkezteagatik.

s) Bigarren mailako biktimizazioa: bigarren mailako biktimizaziotzat jotzen da LGTBI+ pertsonen egiten zaien kaltea, diskriminazio, jazarpen edo errepresalien biktima izateaz gain arreta txar edo desegokia hartzen dutenean administrazioko arduradunen, osasun-erakundeen, poliziaren edo zeresana duen beste edozein eragileren aldetik.

t) Sexu bereko bikotekideen arteko indarkeria: halakotzat jotzen da bere tankera ezberdinetan sexu bereko pertsonen arteko harreman afektibo

eta sexualen esparruan gertatzen den indarkeria, botere-erabilera bat izanik, abusugilearen helburua biktima menderatu eta kontrolatzera zuzendua.

u) Ekintza positiboak: halakotzat jotzen dira historikoki diskriminazioa pairatu duen gizartetalde jakin bati eskubide jakin batzuk aitortu nahi dizkieten ekintzak, haien bizi-kalitatea hobetze eta jasan zuten diskriminazioagatik ordaina emate aldera.

**6. artikulua.** Diskriminazioaren aurkako klausula orokorra.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek eta Nafarroako Arartekoak diskriminaziorik ezerako eskubidea zainduko dute, edozein dela ere kasuko pertsonaren sexu-joera, genero-adierazpena eta sexu-identitatea edo familia-taldekotasuna. Administrazio eta erakunde publiko horiek ofizioz jardun ahal izanen dute, salaketa edo kexarik jaso behar izan gabe.

2. Diskriminaziorik ezerako eskubidea Nafarroako antolamendu juridikoaren, administrazioaren jarduketaren eta jardura judizialaren printzipio informatzailea izan behar da. Aipatu eskubidea loteslea da bai botere publikoentzat bai partikularrentzat. Bereziki, pertsona transexualekiko eta transgeneroekiko diskriminazioa dagoela ulertuko da, ez badituzte beren sexu- edo genero-identitatearen arabera tratatzen. Hori dela eta, jendartera irekitako espazio guztiek, bai erakundeenak direnek bai establezimendu publikoek, sustatuko dute erabilera mistoko hirugarren espazioak egon daitezela, eta hori posiblea ez denean, aukera emanen dute sexuen arabera bereizitako espazioak (komunak, aldagelak...) sentitutako sexuaren arabera erabil daitezela.

**7. artikulua.** Erakundeen aitortpena eta laguntza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko erakundeek eta botere publikoek lan egiten dute Nafarroan LGTBI+ pertsonen ikusgaitasuna izatearen alde; kanpainak eta ekintza positiboak babestuko eta burutuko dituzte, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- eta genero-identitate, harreman afektibosexual eta familiakoen arloan bestelakotasunak duen balio positiboa sustatzeko, arreta gehiago emanaz diskriminazio berezia jasaten duten populazio-sektoreei.

2. Berdintasunaren arloko organo eskudunak kanpainak sustatuko ditu, emakume lesbianek, bisexualek, transexualek eta transgeneroek sexu-joera, genero-adierazpena eta sexu- eta genero-identitatea direla-eta jasaten duten diskriminazio antitza desagerrarazten laguntzeko.

3. Foru Komunitateko botere publikoek urtero ospatuko dute, maiatzaren 17an, Homofobiaren, Lesbofobiaren, Bifobiaren eta Transfobiaren Aurka-ko Nazioarteko Eguna. LGTBI+ pertsonen aldeko aitortpen eta laguntzarako ekitaldi instituzionalak Nafarroako Parlamentuan ospatuko dira. Nafarroako Parlamentuak zein Gobernuak LGTBI+ ikurra paratuko dute bi egoitzetan, aipatu ospakizunaren kariaz.

LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzaileak, zeinaren eginkizunak foru lege honen 8. artikuluan jasota baitaude, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Foru Komunitateko udal guztiei ekitaldi bera egin dezatela gomendatuko die.

4. Era berean, botere publikoek babesa emanen diote oroimen-datetan ekitaldiak eta jarduerak egiteari, horiek normalizazio-bitartekoak baitira, ikusgaitasuna lortzeko modu gisa bizitzan LGTBI+ pertsonen berdintasun sozial erabatekoa eta gauzatu finkatzekoak. Bereziki, babesa eta laguntza emanen zaie LGTBI+ gizarte-mugimendu ekintzaileak ekainaren 28an egiten dituen ekintzei; hots, LGTBI harrotasunaren nazioarteko egunean edo Lesbiana, Gay, Bisexual, Transexual, Transgenero eta Intersexualen Nazioarteko Egunean.

## I. TITULUA

### Antolaketa administratiboa

**8. artikulua.** LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailea

1. LGTBI+ Berdintasunaren arlorako berariazko organo bat sortuko da, berdintasunaren arloko erakunde eskudunaren barruan, eta foru lege honetan jasotako politikak eta neurriak garatu eta betearazteko behar adina autonomia, entitate eta baliabideak izanen ditu, bai eta haien direla-eta departamentuen arteko eta erakundeen arteko esparruan plangintzaz eta koordinazioaz arduratzeko ere.

2. LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailearen barruan, Nafarroako LGTBI+ Kontseilua eratuko da, parte-hartze sektorialerako aholku-organo gisa eta eztabaidarako plataforma egonkorra izateko. Kontseilu horrek bilatuko du LGTBI+ kolektiboaren eskubide-berdintasuna, askatasunak eta errekonozimendu sozialak sustatzea.

3. LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailearen eginkizunak honako hauek izanen dira:

a) Diagnosiko azterlanak egitea, LGTBI+ pertsonen eskubideak aitortzeko, berrezartzeko eta bermatzeko dauden arazo nagusiak aztertzeko, eta politika publikoen eta prestakuntzaren arloko

proposamen eta gomendioak egitea Foru Komunitatean LGTBI+ pertsonen eskubideak bermatzeko.

b) Jarduketak egitea LGTBI+ pertsonen diskriminaziorik paira ez dezaten, kolektibo horren erabateko legezko parekatzea eta parekatze soziala gerta dadin laguntzeko, eta diskriminazioko edozein jarduketa, arautze eta jarrera ekiditeko.

c) Proposamenak aurkeztea, politika publiko sektorialak formulatu, abiarazi, jarraitu eta ebaluatzean LGTBI+ pertsonen eskubideen aintzatespen arloartekoa sustatzekoak.

d) Diskriminaziorik ezerako departamentuarterko planak egitea, Nafarroako Gobernuako departamentuekin eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin behar diren harremanak ezarriz, haien garapena gainbegiratu eta bermatzeko.

e) Hezkuntza, gizarte zein kultura arloko jarduketak, programak eta proiektuak garatzea, LGTBI-fobiaren aurka egiteko zeharkako moduan eta erakunde guztietan.

f) Komunikazio iraunkorra edukitzea kasuko erakunde publiko edo pribatuekin, LGTBI+ pertsonen eskubideak gauzatzeko.

g) LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzaileari dagozkion gainerakoak.

4. Behar diren lankidetzak eta koordinazioa izanen dira LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailearen eta herritarren eskubideen defentsan ardura duten organoen, fiskaltzaren, eta berdintasunaren esparruan eskumena duten beste erakunde batzuen artean.

5. LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzaileak eskumen osoa izanen du zehapen-espedienteak hasi eta instruitzeko, 57. artikuluan zehaztutako prozeduraren arabera.

6. Organo koordinatzaileak aldiro informatuko die Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako LGTBI+ Kontseiluari foru lege honek gizartearen duen eraginaz eta haren garapen-mailaz. Horretarako urteko oroitidazki bat prestatuko du eta/edo Parlamentuan eta LGTBI+ Kontseiluan agerraldia eginen, berak eskatuta edo erakunde interesatuak eskatuta.

7. Haren egitura, osaera eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira.

**9. artikulua.** Nafarroako LGTBI+ Kontseilua.

1. Nafarroako LGTBI+ Kontseilua sortuko da, LGTBI+ pertsonen eskubide eta betebeharren gaitan herritarrek parte hartzeko organo goren gisa eta, halaber, arlo horretan eragiten duten nafar administrazioen kontsulta-organoa izateko,

ezertan ukatu gabe legeek ezartzen dituzten beste organo batzuen eginkizunak eta eskumenak.

Aipatu kontseiluan ordezkatura egonen dira LGTBI+ entitateak eta arlo horretako adituak izateagatik eta egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona eta profesionalak.

2. Nafarroako LGTBI+ Kontseilua atxikiko zaio LGTBI+ pertsonen berdintasunaren gaitan eskumena duen organoari. Kontseiluak informazioa jaso ahal izanen du foru lege honetan ezarritakoaren aplikazioaz, eta hobetze-proposamenak aurkeztu Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuen jardunerako, zerbitzu publiko bat ematen duten enpresa edo entitateetarako eta foru lege honen xede diren gainerako arloetarako, eta arau-proiektuei nahiz arauz besteko proiektuei buruzko irizpenak adierazi.

3. Nafarroako LGTBI+ Kontseilua ordezkatura egonen da Nafarroako Gobernuak ezartzen dituen parte-hartzerako gobernu-organismoetan, foru lege honen xede diren alorretan.

4. Haren egituratzea, eginkizunak, baliabideak eta gainerakoak kasuko dekretuan jasoko dira.

**10. artikulua.** Homofobia, lesbofobia, bifobia edo transfobiagatik indarkeriaren biktimak artatzea.

1. Nafarroako Delituaren Biktimei Laguntzeko oraingo atalak behar diren neurriak hartuko ditu dauden langileei prestakuntza emateko eta profesional espezializatuak eskuratzeko, gorroto-delituaren edo sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- eta genero-identitateagatik diskriminazioaren biktimak artatzeko.

2. Artatze horren barne egonen dira laguntza eta aholkularitza juridikoa, bai eta, hala behar denean, pertsona horiek bideratzea ere osasun laguntzako beste baliabide batzuetara, horietan barne zerbitzu espezializatua eta neurri sozialak, behar izanez gero haien oneratzeko integralki erraztera bideratuak.

## II. TITULUA

### LGTBI+ pertsonen berdintasun gauzatua sustatzeko politika publikoak.

#### I. KAPITULUA

##### Arlo sentikorretan jarduten duten profesionalak

**11. artikulua.** Prestakuntza eta sentsibilizazioa.

1. Nafarroako administrazio publikoek prestakuntza eta sentsibilizazio egokia bermatuko dute osasun, hezkuntza, lan, gizarte-zerbitzu, jus-

tizia eta segurtasun indar, kirol eta aisia eta komunikazio arloetan prebentzio, antzemate, arreta, laguntza eta oneratzeko lanak egiten dituzten profesionalentzat.

2. Prestakuntza sustatu behar da beste administrazio publiko batzuetatik transferituak ez diren funtzionario zein lan araubideko langileentzat, lankidetzak hitzarmenen edo bestelako tresnen bidez.

**12. artikulua.** Esku hartzeko betebeharra.

1. Baldin eta 11. artikulua aipatzen dituen profesionalak, arrisku egoera baten berri edo oinarri-dun susmoa badute sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik diskriminazioa edo indarkeria gertatzeari dagokionez, horren berri eman beharko diete gizarte zerbitzuei, segurtasun indar eta kidegoei eta organo eskudunari. Adingabeen kasuan, profesional horien eta Administrazioaren jardueran, oro har, nagusi izanen da adingabearen interes gorenaren arreta eta zuzenduko da haien nortasunaren garapen askera, sentitutako sexuaren arabera, eta sufrimenduko eta indefentsioko egoerak saihestera.

2. LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzaileak jarduteko berariazko protokolo bat prestatu beharko du, 1. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako.

## II. KAPITULUA

### Gizarte arloko neurriak

**13. artikulua.** Kolektibo ahulenentzako laguntza eta babesa.

1. Nafarroako administrazio publikoek diskriminazioari aurrea hartzeko eta ikusgaitasuna laguntzeko neurriak hartu beharko dituzte, ahultasun handieneko kolektiboari begira –nerabeak, umeak, hirugarren adineko pertsonak, dibertsitate funtzionala dutenak–, eta lan egiten dute pertsona horien egoera pertsonalagatik horien bizitzari edo osasunari eraso egin diezaieketen egoeren prebentzioan. Bereziki, laguntza eta babeserako neurri berariazkoak hartuko dira, sexu-joera, genero-adierazpena eta sexu- edo genero-identitatea direla-eta familia-esparruan presio edo tratu txar psikologikoa jasaten duten adingabe, nerabe eta gazteentzat.

2. Nafarroako Gobernuak neurriak eta jarduketak bultzatu beharko ditu, tratu txar eta presio psikologikoko egoerengatik familiaren bizilekutik kanporatuak izan edo bertatik borondatez joan diren LGTBI+ nerabe eta gazteei laguntzeko.



3. Nafarroako Gobernuak behar diren mekanismoak ezarriko ditu LGTBI+ adingabeen babes eraginkorrerako, administrazioaren tutoretzapean daudenean, dela adingabeen zentroetan, tutoretzapeko pisuetan edo bizi diren beste baliabide batean; eta haien sexu-joeraren, genero-adierazpenaren eta sexu- edo genero-identitatearen erabateko errespetua eta bizitza baldintza osoak bermatuko ditu.

4. Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu dibertsitate funtzionala duten LGTBI+ pertsonak babesteko eta haien eskubidea erabat errespetatzeko.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonei arreta emateko zentroetan, publiko zein pribatuetan, begiratuko da LGTBI+ pertsonak bereziak ez izateko eskubidea benetakoa eta eraginkorra izan dadin.

Gizarte-zerbitzuek sustatuko dute beren zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen artean dibertsitatea onar dadila, sexu-joerari, sexu-identitateari edo/eta genero identitateari edo genero-adierazpenari dagokienez.

5. Nafarroako Gobernuak begiratuko du adin kontuengatik bereziki ahulak diren LGTBI+ pertsonen diskriminazio egoerarik jasan ez dezaten.

Foru lege honetan, adingabeen babesaren edo legezko zaintzaileen bitartekaritza gauzatu da. Bitartekaritza hori adingabeen babeserako atalaren bitartez egin ahalko da, sexu-identitatea ukatzearen ondoriozko sufrimendu- edo indefentsio-egoerak gertatzen direnean.

Zahar-etxeetan, publiko zein pribatuetan, LGTBI+ pertsonei bermatuko zaie bereziak ez izateko eskubidea, gizabanako gisa zein harreman sentimentaletan edo bestelakoetan.

6. Behar diren neurriak hartuko dira, sexuaren arabera bereizitako guneak edo ekipamenduak, adingabeen zentroetan, tutoretzapeko pisuetan, desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-zentroetan, zahar-etxeetan, edo bereziki ahulak diren pertsonak hartzen dituen gainerako edozein baliabidetan, pertsona transexual, transgenero edo intersexualek erabili ahal izan ditzaten sentitzen duten sexuaren arabera.

7. Nafarroako Gobernuak babes berezia emanen die kolektibo batzuetako pertsonei, zeinetan diskriminazio handiagoa egon daitekeen sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen arabera, tradizio edo kultura kontuengatik.

8. Nafarroako Gobernuak betiere bermatuko du foru lege honen aplikazio esparru guztietako profesionalei behar diren tresnak emanen zaizkiela diskriminaziorik ez egoteko, eta behar diren langile espezializatuak egonen direla gai bakoitzerako, ezarriko diren protokolo eta neurrietan zehaztuko den moduan.

9. Nafarroako Gobernuak, halaber, bermatuko du LGTBI+ pertsonei arreta emateko zerbitzu publiko bat egon dadila, errealitate horretan adituak diren langileek artatua, zeinean bereiz artatuko baitira sexu-identitatearekin eta -joerarekin lotutako gaia. Adingabeen kasuan, haien familientzako arreta berezia ere jasoko da.

### III. KAPITULUA Osasun arloko neurriak

**14. artikulua.** Osasun fisiko, mental, sexual eta ugalketakorako eskubidearen babesa.

1. Pertsona orok du osasun fisiko eta mentala, sexu- eta ugalketa-osasuna barne, mailarik handienean gozatzeko eskubidea, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko inolako diskriminaziorik gabe.

2. Nafarroako osasun sistema publikoak, bai eta finantzaketa publikoa duen osasun zerbitzu itundu bat eskaintzen duten enpresek edo entitateek ere, generoko ikuspegia sartu behar dute bere baitan, eta kontuan hartu LGTBI+ pertsonen beharrian espezifikoak, eskubide bermatua izan dezaten osasun arreta eta zerbitzuak berdintasun-baldintza objektiboetan jasotzeko. Nafarroako Gobernuak zainduko du baldintza hori sar dadila enpresa edo entitate horiekiko hitzarmenetan.

3. Nafarroako osasun sistema publikoak bermatuko du osasun arloko politika LGTBI+ pertsonekiko errespetuzkoa dela, eta ez duela patologia gisa hartzen, zuzenean nahiz zeharka, pertsona horien izaera. Halaber, sustapen, prebentzio eta arretarako berariazko zerbitzu eta programak ezarriko ditu, pertsona horiei eta haien familiei ahalbidetzeko osasun arreta eraginkor eta osorako eskubidea, haien beharrian partikularrak aitortu eta kontuan hartuko dituen.

4. Osasun erakundeetako zentroetan, publiko eta pribatuetan, sustatuko da osasun praktika edo terapia psikologiko zilegi eta errespetuzkoak ezartzea, inoiz ere ez direnak abertsiboak izanzen sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateari dagokienez.

5. Nafarroako osasun sistema publikoak ematen duen osasun arreta egokitu eginen zaio harzaitzearen sexu-identitateari.



**15. artikulua.** Pertsona transexual eta transgenerokoei arreta integrala emateko protokoloa.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak profesional adituen talde koordinatzaile bat osatuko du. Talde horrek, pertsona transexual eta transgeneroen kolektiboen lankidetzak aktiboarekin, bai eta LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailearen lankidetzak aktiboarekin ere, sustatuko du protokolo batzuk ezar daitezela, haien bidez berma dadin sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminaziorik gabeko tratua, arreta berezia emanaz pertsona transexualei. Protokolo horrek, gainera, lege honetan jasotako printzipio eta eskubideak errespetatuko ditu.

2. Pertsona transexual eta transgeneroen osasunaren arretak sexu- edo genero-identitatearen autodeterminazio askea izanen du gidalerro, pertsona horiek helduak zein adingabeak izan eta arreta publikoa zein pribatua izan. Pertsonak bere garapen fisiko, mental eta sozialerako –modu osasuntsu eta osoan– lagungarri gertatzen zaion osasun arreta jaso beharko du, bereziki purbertaroan, adingabeen kasuan. Eskubide hori ezin izanen da mugatu, murriztu, zaildu edo baztertu, eta arauak beti interpretatu eta aplikatu beharko dira eskubide horren baliatze aske eta osoaren alde.

3. Osasun arreta ikuspegi despatologizatzaile batean oinarrituko da, alegia, joko da bizipen transexual edo transgeneroa ez dela gaixotasun, nahaste edo anomalia bat, baizik eta giza aniztasunaren zati bat. Osasunaren arloko profesionalak behar duen akonpainamendua emanen dute pertsona transexual edo transgeneroak sentitzen duen identitatea gara dezan.

4. Pertsona transexual edo transgeneroek honako hauetarako eskubidea izanen dute:

a) Aplikatzekoa zaien zerbitzu-zorroaren barruan eskainitako tratamenduak eskuratzea.

b) Arreta banakatuaren prozesuari buruzko informazioa eta balorazioa jasotzea, horren bidez errazteko haiek ukitzen dituzten tratamendu guztiei buruzko erabaki informatuak har ditzatela. Inongo tratamendurik ezin izanen da aplikatu aurrez kasuko baimen informatua jaso gabe, bermatuz tratamendu hori libreki eta nahita onartu dela.

c) Edozein unetan profesional adituen bigarren iritzi bat eskatzea prozesuari eta tratamenduari buruz, legedi indardunean ezarritako terminoetan.

d) Beren sexu- edo genero-identitatearen arbera artatua izatea, eta hari dagozkion areto edo zentroetan sartzea, sexua dela-eta egoitza des-

berdinak daudenean, segregazio edo diskriminazio oro saihestuz.

e) Hurbil artatuak izatea, beharrezkoak ez diren desplazamenduak eta gastuak egin behar izan gabe. Halaber, eskubidea izanen dute beren borondatez eskatzeko tratamendurako egokiak diren arreta espezializatuko zentroetara deribazioa eskatzeko.

f) Kontsulta eta elkarrizketa guztien pribatutasuna, bai eta datu pertsonal administratibo eta kliniko guztien konfidentzialtasuna ere. Horri dagozkionez, bermatuko da osasun-laguntzarako ematen den identifikazio-dokumentazioan sentitutako sexu- edo genero-identitateari dagokion izen eta sexua agertuko direla.

g) Idatziz jasotzea osasun-historian jasotako informazio guztia, une horretara arte jarraitutako tratamenduari buruzkoa, hura jarraitu ahal izateko beste autonomia erkidego batera edo beste herrialde batera joanez gero.

h) Foru lege honetan zehaztutako tratamendu eta ebakuntza jakin batzuetarako zerbitzua eskaini eta kalitate estandar egokiak eskaintzen dituzten ospitale publiko zein pribatuetara deribatutak izatea, norberarentzako tratamendu segurua, moderno eta egokienak bermatze aldera. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bere gain hartuko ditu pertsona eskatzailearen joan-etorriei, ostatuari eta tratamendu mediko edo kirurgikoari buruzko gastuak, halakorik badago.

i) Lege honetan deskribatutako prestazioak epe ahal den laburrenean jasotzea, zuzenean eta segregaziorik gabe.

5. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bermatuko du kasuko arlo, unitate eta zerbitzuetan (endokrinologia, ginekologia, urologia, psikologia, pediatria, sexologia eta beste) profesional gaituak daudela lege honetan jasotako prestazio eta zerbitzuak emateko, dagoen eskaerari erantzun eta arreta arrazoizko epe batean eman ahal izate aldera.

6. Zerbitzu horietarako sarbidea lehenengo bananako kontsulta edo elkarrizketa bat izanen da, sexu- eta ugalketa-osasuneko zentroetan zein oinarritzko osasun laguntzako zerbitzuetan egina. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bermatuko du zerbitzu horietarako deribaziorako bide egoki, azkar eta eraginkorrak badaudela, pertsona transexual edo transgeneroen eskaera eta beharrak zehaztu ahal izateko.

7. Bere eskumenen barruan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak honako hauek

eskainiko dizkie pertsona transexual eta transgeneroei:

a) Tratamendu hormonalak, betiere kontuan hartuz hura hartzeko eskatzailearentzat egokiena den moldea.

b) Prozesu kirurgiko genitala, bularra handitzea eta toraxa maskulinizatzea.

c) Ebakuntza ondoko jarraipena, haren kalitateari buruzkoa.

d) Ebakuntza kirurgikoetarako behar den material protesikoa.

e) Aurpegia feminizatzeke kirurgia.

f) Norberaren ezaugarri sexualak sentitutako identitatara egokitzeko eska daitezkeen protesi ez-kirurgikoak.

g) Tratamendu kirurgikoak eta ez-kirurgikoak, ahotsaren tonua eta tinbrea modulatzekoak.

h) Aurpegiko fotodepilazio-prozedurak edo etorkizunean garatzen diren bestelako teknikak.

i) Akonpainamendu psikologiko egokia, baldin eta erabiltzaileak edo senideren batek eskatzen badu. Akonpainamendu hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gainerako erabiltzaileentzat dagoen bera izanen da, eta ezin izanen da osasun arreta espezializatuko prestaziorako baldintza gisa jarri aurrez inongo azterketa psikologikorik egitea.

Langile horiek sexu- eta ugalketa-osasuneko zentroetan eginen dute lan, 13. artikuluko 9. apartatua deskribatutako LGTBI+ pertsonen arretarako zerbitzuarekin lankidetzan estuan.

j) Sexu- eta ugalketa-osasunaren sustapena, prebentzioa eta aholku-ematea.

k) Txosten medikoak, Estatuko legeak haien beharra ezartzen jarraitzen duen bitartean, izena eta sexuaren gaineko erregistro-aipamena aldatzea ahalbidetzen dutenak, bai eta, interesdunak eskatzen badu, honako ingurune hauetarako txostenak ere: familiakoa, hezkuntzakoa, gizartekoa, lanekoa eta abarrekoa.

l) Jarraipen eta akonpainamendu mediko egokia, aldizkotasun jakin batez, erabiltzaile bakoitzaren egoera pertsonalari egokitua.

Emate-modu desberdinak dituzten tratamenduak beti emanen dira eskatzailearentzat egokiena den formatua lehenetsiz.

m) Espresuki debekatzen da abertsio-terapiak erabiltzea, ez eta bestelako prozedurarik ere, pertsona transexualaren edo transgeneroaren nortasuna

edo borondatea suntsitzeko ahalegina bada, edo beste edonola irain edo tratu diskriminatzaile, umiliagarri, edota bere duintasun pertsonalaren aurkakoa ematea badakar.

8. Adingabe transexual edo transgeneroek, gainera, honako hauetarako eskubidea izanen dute:

a) Pubertaroaren hasieran blokeo hormonaleko tratamendua jasotzea. Egoera hori erabakiko da datu objektiboak erabiliz; esate baterako, estradiol- eta testosterona-mailen neurketa, hazkundearen abiadura edo obario eta gonaden heldutasuna, nahi gabeko ezaugarri sexual sekundarioen garapena saihesteko.

b) Tratamendu hormonal gurutzatua, pubertaroaren une egokian, errazte aldera gorputzgarapena bat datorrela adin bereko pertsonak daukatenarekin, nahi diren ezaugarri sexual sekundarioen garapena bultzatze aldera.

Adingabe transexual edo transgeneroek tratamendu hauek jasotzeko eskubidea izanen dute, alde zuzeneko baimena emanda, 21. artikuluan xedatuaren arabera.

9. Artikulu honetako zerbitzuak gaurkotu egiten dira jakintza zientifikoaren aurrerapenaren arabera, eta osasun arloko departamentu eskuduna izanen da gaurkotze horren erantzulea.

**16. artikulua.** Estatistikak eta datuen tratamendua.

a) LGTBI+ kolektiboarentzako osasun arloko laguntzaren jarraipenean sartuko da, baita ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak estatistikak sortzea egiten diren tratamendu, terapia eta ebakuntza desberdinen emaitzei buruz. Estatistika horietan zehaztuko dira erabilitako teknikak, izandako arazoak eta erreklamazioak, bai eta laguntzaren kalitatearen balorazioa ere.

b) Estatistiketarako datu horiek biltzean, isilpekotasun, gardentasun, espezialitate eta proportzionaltasunaren printzipioei jarraituko zaie. Estatistiken isilpekotasuna dela eta, Nafarroako administrazio publikoek ezin izanen dituzte inolaz ere zabaltu pertsona erabiltzaileei buruzko datu pertsonalak.

c) Lehen apartatua aurreikusitako estatistikak egiteko, fitxategi automatizatu bat sortuko da. Nafarroako Osasun Zerbitzua izanen da fitxategi horren titularrak, eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa aplikatuko du.

**17. artikulua.** Pertsona intersexualei arreta integrala emateko protokoloa.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak begiratuko du desager daitezten jaioberriei genitalak aldatzeko jokabideak, morfologia genitaleko irizpide hutsetan oinarrituta, une horretan ez baita ezagutzen zein den jaioberri intersexualaren benetako identitatea. Baina inoiz ukatu gabe jaioberriaren osasun integralaren babesean oinarritutako irizpide medikoak, eta lege baimenarekin.

2. Ahalegina eginen da gonadak kontserbatzeko, etorkizuneko induzitu gabeko ekarpen hormonalak babesteko. Tumore-markatzaileen gaineko kontrolak jasoz.

3. Ez da hormonatze induzituko probarik eginen helburu esperimentalekin, ez eta bestelakorik ere, harik eta pertsonak berak edo haren legezko tutoreek eskatzen duten arte, sentitutako sexu-identitatearen arabera.

4. Esplorazio genitalak hertsiki beharrezko denera mugatuko dira, eta beti osasun irizpideei jarraituz.

5. Osasun-langileei prestakuntza emanen zaie, azpimarra berezia eginez tratua zuzentasunean, pribatutasunean eta intimitatea errespetatzean.

6. Pertsona intersexualei foru lege honen 15. artikuluan pertsona transgenero eta transexualentzat deskribatutako zerbitzu berak eskainiko zaizkie, bide berdinetatik eta baldintza berdinetan.

**18. artikulua.** Osasun-laguntza LGTBI+ pertsonen ugalketaren eta genitalen esparruan.

1. Nafarroako osasun sistema publikoak programa eta protokolo bereziak sustatuko ditu, LGTBI+ pertsonen berezko beharriaz erantzuna emateko; bereziki, sexu-eta ugalketa-osasunari.

2. Bermatuta egonen da ugalketa lagunduko teknikak erabiltzea, eta horien onuradun izanen dira haurdun gelditzeko gaitasuna duten LGTBI+ pertsona guztiak edo/eta haien bikotekideak, berdintasuneko eta diskriminaziorik ezeko araubidean.

3. Tratamendu hormonalak hartzearen alde egingen duten pertsona transexualen kasuan, tratamendu hori hasi baino lehen, gonaden ehuna eta ugalketarako zelulak izozteko aukera eskainiko zaie, etorkizunean berreskuratu nahi badituzte ere.

4. Halaber, arreta ginekologikoa edo/eta urologikoa bermatuko zaie hura behar duten gizon transexualei eta arreta urologikoa edo/eta ginekologikoa, berriz, hura behar duten emakume

transexualei; eta berdin jokatu da pertsona intersexualekin.

**19. artikulua.** Osasun-sistemako langileak prestatzea.

1. Osasun Departamentuak bermatuko du osasun arloko langileek prestakuntza egoki eta gaurkotua izan dezatela homosexualitateari, bisexualitateari, transexualitateari eta intersexualitateari buruz. Bereziki garrantzitsu gertatzen da pediatriako profesionalen prestakuntza, haurren transexualitatearen identifikazio goiztiarrerako eta akonpainamendu egokia egiteko.

2. Nafarroako osasun sistemak profesionalen talde koordinatzaile bat eratuko du, berma dezaten sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminaziorik gabeko tratua osasun-sistemaren erabiltzaileentzako, arreta berezia emanez pertsona transexualei.

3. Osasunaren arloko eskumena duen departamentuak sustatuko du LGTBI+ pertsonentzako osasun politika bereziak aztertzea, ikertzea eta garatzea.

**20. artikulua.** Sexu-transmisiozko gaixotasunen prebentziorako kanpainak.

1. LGTBI+ kolektiboaren errealitatea eta haren espezifikotasunak sexu-hezkuntzari buruzko eta transmisio sexualeko infekzioen eta GIBaren prebentziorako kanpainetan sartuko da. Profilaxiko informazio-kanpainak eginen dira hainbat esparru sozialetan, hezkuntzaren esparrua barne dela.

2. Osasun Departamentuak eta Osasun Publikoaren Institutuak, osasun zerbitzuen eta transmisio sexualeko infekzioen prebentzioaren eta sexu-osasunaren arloan lan egiten duten GKEen eta entitateen arteko lan-mahai bat osatzearen bidez, aldizka informazio- eta prebentzio-kanpainak egingen dituzte espezifikotasun horiek eta kontuan hartuz eta horien egokitasuna eta abagunea bermatuz.

**21. artikulua.** Baimena.

Kapitulu honetan aurreikusten diren tratamenduetarako, alde aurreko baimen informatua behar da, legezko gaitasuna duen pertsona batek emana, edo, ordezkari bidezko baimenen kasuetan, Nafarroako Foru Komunitatean pertsonak dituzten osasunaren alorreko eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean aurreikusitako moduan.

Adingabeei dagokienez:

a) Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta bete-

beharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen 48. eta 51. artikuluetan xedatuaren arabera, adingabea bera izanen da pubertaroaren hasieran blokeo hormonalerako tratamendurako edo tratamendu hormonal gurutzaturako baimena emanen duena, adingabeak gaitasun intelektual eta emozionala duenean tratamendu horien norainokoa ulertzeko, eta, nolahi ere, adingabe emantzipatuak edo 16 urtetik aurrerakoak diren.

b) Adingabea tratamendu horien norainokoa intelektualki eta emozionalki ulertzeko gai ez bada, baimena adingabearen legezko ordezkariak emanen du, haren iritzia entzun ondoren, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 9. artikuluan xedatuaren arabera.

c) Amek, aitek edo tutoreek ezezkoa ematen badiote traxsexualitatearekin lotutako tratamenduak baimentzeari edo prebentzio gisa garapen hormonalaren inhibiziorako tratamendu bat emateari, horren aurkako errekurtsoa aurkeztu ahalgo da agintari judizialen aurrean, egiaztatzen denean horrek kalte edo sufrimendua ekar diezaiokeela pertsona adingabe transexual edo transgeneroari. Nolanahi ere, adingabearen interes gorenari erreparatuko zaio beste edozein interes legitimoren gainetik, Adingabearen Babes Juridikorako urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan, eta bereziki haren 2. eta 11.2.) artikuluan ezarritakoari jarraituz.

## **22. artikulua.** Dokumentazioa.

Nafarroako Gobernuak, dagozkion eskumenen esparruan, behar diren mekanismoak ezarriko ditu, dokumentazio administratiboa eta inprimaki medikoak egokituta egon daitezten familia-egitatearen heterogeneotasunera eta LGTBI+ pertsonen inguruabarretara.

Osasun arloko erakundeek gainerako administrazioek bete beharreko arau berak bete beharko dituzte, hain zuzen ere 44. artikuluan deskribatutakoak.

## **IV. KAPITULUA**

### **Familia arloko neurriak**

**23. artikulua.** Familia-bestelakotasunaren babesa.

1. Foru lege honek edonolako diskriminazioaren aurkako babes juridikoa ematen du LGTBI+ pertsonen arteko izatezko nahiz zuzenbidezko elkartzetan, filiazio nahiz ezkontza bidezko ahaidetasun-loturetan eta beren kargura seme-alabak

dituzten unitate aitabakarretan edo amabakarretan.

2. Familiaren arloko erakunde eskudunak eta toki entitateek, familiei zuzendutako informazio programak izanen dituzte, afektu- eta sexu-errealitate ezberdinak dibulgatzeko eta sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurka borrokatzeko.

Programa horiek egiteko, LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailearen parte-hartzea eskatuko da.

3. Familiari laguntzeko programek azpimarra berezia jarriko dute tratu berdintasunari buruzko informazioan eta horren sustapenean, LGTBI+ pertsonen artean adin kontuengatik ahultasun handienekoak direnei begira, hala nola haurrak, nerabeak, gazteak eta zaharrak, bermatuak izan ditzaten beren eskubideen baliatze erabatekoa eta familiaren esparruan beren nortasuna libreki garatzea.

4. LGTBI+ familia batean jaiotzaz, harreraz edo adopzio bidez bizi diren haurrekiko errespetua eta babesa sustatuko dira.

5. Arreta integrala emateko zerbitzuak, 13. artikuluan 9. apartatuak aipatzen duenak, artatu egin behar ditu, toki entitateekin koordinatuta, familiaren esparruko diskriminazioaren biktimak, eta haiei laguntza eman, bereziki indarkeria matxistaren kasuetan edo LGTBI+ pertsonak inplikaturik dauden kasuetan.

6. Foru Komunitateko administrazio publikoek behar diren mekanismoak ezarriko dituzte dokumentazio administratiboa egokituta egon dadin LGTBI+ pertsonen afektibitate-harremanetara eta familia-egitatearen heterogeneotasunera.

## **24. artikulua.** Adopzioa eta familia-harrera.

1. Indarra duen araudiari jarraikiz, bermatuko da sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminaziorik ez egotea adopzioa eta familia-harrerako prozesuetan egokitasuna baloratzean.

2. Adingabeen zentroetan familia-bestelakotasuna landuko da, bermatze aldera adopzioarako edo familia-harrerako aukera duten adingabeak jabetuta egon daitezten sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko eratorritako familia-bestelakotasunaz.

## **25. artikulua.** Familiaren esparruko indarkeria.

1. Familia-indarkeriatzat joko da, eta laguntza eta babes neurriak hartuko dira, familiaren esparruan edozein indarkeria mota erabiltzen denean



familiako edozein kideren sexu-joera, sexu-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatea direla-eta. Guraso-ahala edo tutoretza esleituta duten pertsonak adingabe baten sexu-joera edo -identitatea errespetatzeari ezezkua ematea arrisku-egoeratzat joko da, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak ezarritako eraginetarako, salbu eta, inguruabarrak direla-eta, indarkeriatzat edo tratatu txar psikikotzat jotzen denean.

2. Bikotekideetako bat edo biak LGTBI+ pertsonak diren bikoteetako indarkeriaren biktimentzako arreta- eta laguntza-neurriak hartuko dira, jazarpena jasaten duen pertsonaren babes bermatzeko jazarlearen aurrean, era horretan biktimaren independentzia fisikoa eta ekonomikoa erraztuz.

3. Halaber, emakumezko sexu- edo genero-identitatea eduki eta izaera horrekin indarkeria matxistaren biktima den pertsona orok aukera izanen du, berdintasun baldintzetan, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean agertzen den babes integrala jasotzeko.

## V. KAPITULUA

### Hezkuntza arloko neurriak

**26. artikulua.** Esku hartzeko betebeharra.

1. Eskola-esparruan pertsona guztiak errespetatu behar dira, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik inolako diskriminaziorik gabe.

2. Hezkuntza Departamentuak, LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailearekin lankidetzan, Nafarroako hezkidetzari eta LGTBI+ bestelakotasunari buruzko plan integral bat prestatuko du, Nafarroako LGTBI+ errealitatearen gaineko azterlan batetik abiatuta, zeinak ikertuko baitu gai horien gainean irakasleek, familiek eta ikasleek duten pertzepzioa, eta kontuan hartuko baititu hezkuntza arloan LGTBI+ pertsonen berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko beharrezkoak diren neurriak. Plan horrek, besteak beste, jasoko du LGTBI+ kolektiboari ikastetxeetan ematen zaien tratamendua. Plan integral horretan aurreikusitako neurriak heziketa maila eta ziklo guztietan aplikatuko dira, bai irakaskuntza publikoan, bai pribatuan ere.

3. Nafarroako Hezkuntza Administrazioak:

a) Trebatze eta sentsibilizazio programak abiaraziko ditu, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen eta berdintasun eta diskriminaziorik ezari

buruzko printzipioen gainekoak, sexu-joerari, genero-adierazpenari eta sexu- eta genero-identitateari buruzkoak barne, hezkuntza sistemarekin zerikusia duen edozeini zuzenduak.

b) Beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, hezkuntza eta trebatze programak barne, hezkuntza sistematik ezabatzeko edozein sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitate besteak baino gutxiago edo gehiago dela uste izatean oinarritutako aurreiritziak edo diskriminazioa adierazten duten jarrerak eta praktikak.

4. Hezkuntza Departamentuak, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetako zuzendari-tzarekin eta administrazio publikoekin batera, hezkuntzaren arloko oinarritzko helburu gisa izanen du hezkuntza iraunkor eta kalitatezkoa, zeinak aukera emanen baitie LGTBI+ pertsonen pertsonalki eta sozialki garatzeko. Horretarako, beharrezkoak diren legegintza-, administrazio- eta bestelako neurriak hartuko dituzte, bermatzeko hezkuntza sistemarekin zerikusia duten pertsona guztiei (ikasleak, langileak, irakasleak...) berdintasunezko tratua ematen zaiela, inolako diskriminaziorako arrazoi gisa hartu gabe sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatea. Bereziki:

a) Irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak ikasle transexualei zuzenduko zaizkie horiek aukeratutako izena erabiliz. Izen hori erabiltzeko eskubidea errespetatuko da ikastetxean egiten diren eskolako zein eskolaz kanpoko jardura guztietan.

Jendaurrekoa den eta ikasleei, irakasleei eta ikastetxeko gainerako langileei zuzentzen ahal zaien dokumentazio administratiboa (gelako zerrendak, kalifikazioen informazio-buletina, ikasle-txartela, tutoretzen ordutegia, hauteskunde sindikaletarako hauteskunde-zentsuak eta abar) egokitu eginen da, bertan izen hautatua paraturik eta zaindurik izen hori ez dadin ager gainerako ikasleen, irakasleen edo ikastetxeko pertsonen izenak erakusten diren moduz bestelako batean. Halaber, irakasleek hautatu duten izena eta sexu-identitatea Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren datu-baseetan eta sistema informatikoan jasoko dira, eskolako informazioa kudeatzeko. Erregistroko izena zuzendu denean, titulazioa izen horrekin bat datorren moduan emanen da, alde batera utzita historia akademikoan agertzen den izena.

b) Ikasle transexualen irudi fisikoa errespetatuko da (eta errespetaraziko da), bai eta haiek beren janzkera libreki hautatzea ere. Ikastetxean sexuaren arabera bereizitako uniformeak janztea nahi-



taezkoa denean, aitortuko da adierazitako sexu-identitateari dagokiona janzteko eskubidea.

c) Sexuaren arabera bereizitako instalazioetan –komunak eta aldagelak, esate baterako–, bermatuko da ikasle, langile eta irakasle transexualek (besteek bezalaxe) sentitzen duten sexuari dagoz-kion instalazioetara sartu eta haiek erabiltzea.

d) Sexuaren arabera bereizitako jarduerak egiten badira, sentitutako sexua hartuko da kontuan.

e) Neurri horiek hartzeko ez da inolaz ere aurrez baldintza gisa jarriko inongo txosten mediko edo psikologikorik aurkeztea.

f) Babes egokia ziurtatuko zaie eskola-esparruan ikasle, langile edo irakasle transexualei, gizarte-bazterketako eta indarkeriako modu ororen aurka, jazarpena eta xaxatzea barne direla.

g) Baldin eta emantzipatu gabeko adingabearen legezko ordezkarietako bat aurreko neurrien aurka badago, zentzuzko zuzendaritzak dagokion oinarritzako gizarte zerbitzuari jakinaraziko dio hura ez datorrela bat adingabe transexualaren kasua artatzeko planteamenduarekin, eta, nolahi ere, adingabearen interes gorena lehenetsiko da izan litekeen beste edozein interes zilegiren gainetik, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarillaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan –bereziki 2. eta 11.2.1 artikuluetan– ezarritakoaren arabera.

5. Adingabe transexualak dauden ikastetxeetan, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak bermatuko du prestakuntzako plan integral bat egin dadila, hezkuntza-erkidago osoa hartuko duena (irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, gurasoak, ikasleak eta ikasgelako esku-hartze pedagogikoa). Prestakuntza- eta aholkularitza-zeregin hori haurren eta gazteen transexualitatearen errealitateari buruzko berriazko ezagutza duten sexologiako profesionalek bete-ko dute.

## **27. artikulua.** Hezkuntza planak eta edukiak.

1. Foru lege honi dagokionez, hezkidetzak da hezkuntza jardun bat, zeinak indartzen baitu benetako aukera-berdintasuna eta sustatzen baitu sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik edozein diskriminazio- edo indarkeria-motaren desagertzea.

2. Hezkidetzak printzipio horri heldurik, begiratu-ko da hezkuntza esparru ezberdinetan errespetu- daitezkeen sexu- eta afektibitate-bestelakotasuna, sexu- edo genero-identitatea, genero-adierazpena eta familia-eredu ezberdinak.

Nafarroako Hezkuntza Administrazioak segur- tatuko du hezkuntzako metodologia, curriculumak

eta baliabideak baliagarriak direla sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identita- teen bestelakotasuna gehiago ulertu eta errespetatzeko.

3. Nahitaezkoa izanen da ikastetxe bakoitzean hezkidetzak-plan bat egon dadila, tutoretza-planak, hezkuntza-orientazioko planak eta bizikidetasun- planak orientatuko dituen, bai eta harrera-proto- koloak ere. Bestalde, Nafarroako Gobernuak ikastetxeetako antolamendu- eta funtzionamendu- erregelamendua egokituko du foru lege honetan jasotakoaren arabera.

Ikastetxe bakoitzak bere autonomiaren indarrez onesten duen hezkuntza proiektuak errespetatu beharko du, nolahi ere, foru lege honetan LGBTBI+ pertsonen berdintasun soziala dela-eta ezarritakoa.

Hezkuntza-planek ikastetxearen hezkuntza- proiektuan eta curriculum-proposamenean jaso beharko dute LGBTBI+ pertsonen eskubideen aitort- za eta errespetua, bai eta haien ikusgaitasuna eta sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- eta gene- ro-identitateagatik diskriminaziorik eza.

Horretarako, tresnak, baliabideak eta estrate- giak izanen dituzte, bestelakotasunean hezteko, eskola jazarpenari aurrea hartzeko eta errespe- tuan eta berdintasunean hezteko, hezkuntza for- malean nola ez-formalean, curriculumari berdinta- sun eta bestelakotasunen aitortza positiboa lantzen duten edukiak erantsiz.

4. Nafarroako Gobernuak, dagozkion eskume- nen esparruan, behar diren neurriak hartuko ditu, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatean oinarritutako diskriminazioa edo indarkeria fisiko edo psikologikoa inplikitzen duten hezkuntza-edukiak eraldatzeko, eta halatan inklusiorako eta aniztasunerako eskola bat bermatuko du, irakaskuntza publikoan zein pribatuan. Edozein formatutan erabiltzen den hezkuntza- materialaren edukiek eta haietan erabiltzen den hizkerak errespetua eta babesa bultzatuko dituzte sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identiterako eskubideari dagokionez.

5. Sexu-joerari, genero-adierazpenari eta sexu- eta genero-identitateari eta foru lege honen prin- tzipioei dagokienez, bestelakotasunaren errespe- tua hezkuntza sistema osoan behar da gauzatu, prestakuntza zentro eta entitateetan, helduen hezkuntzan, gurasoen prestakuntzan, ikaste- txeetako kirol jardueretan eta haur eta gazteen astialdiko jardueretan, bai eta hezkuntza ez-formal guztian ere (kirol-jarduerak, aisiako taldeak, kultur zentroak, gazteentzako zentroak, tutoretzapeko

pisuak, ludoteka, haur eta gazteentzako aisiako jarduerak...).

6. Ikastetxe publiko eta pribatuak zainduko dute sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko indarkeriaren gaineko kontzientziaketa eta prebentzioa egiten direla, eta bideak taxutuko dituzte edozein pertsonaren horrengatik balizko diskriminazio- edo bazterkeria-egoerak antzemateko. Konpromiso eta prozedura horiek modu esplizituan adieraziko dira ikastetxe bakoitzeko hezkidetzan planetan.

7. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak bermatu beharko du artikuluko honetan ezarritakoa garatzen dela, eta begiratuko du eskolak, institutuak eta gainerako ikastetxeak ingurune lagungarria izan daitezela sexu- eta afektibitate-bestelakotasunerako, zeinetan ikasleek, irakasleek, administrazio eta zerbitzuetako langileek eta familiek naturaltasunez biziko duten beren sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatea, eta horrela lagunduko den hezkuntza erkidegorako eredu positiboak sortzen.

8. Zerbitzu publiko bat (ikasle-trukeak, txangoak, aste zuriak...) eskaintzen duten enpresa edo entitateek generoko ikuspegia sartu beharko dute beren baitan, eta kontuan hartu LGTBI+ pertsonen berariazko beharrezan. Nafarroako Gobernuak zainduko du baldintza hori sar dadila enpresa edo entitate horiekiko hitzarmenetan.

**28. artikulua.** Prestakuntza- eta dibulgazio-ekintzak.

1. Irakasleei, irakasle ez diren langileei eta zerbitzuetako langileei prestakuntza egokia emanen zaie, prestakuntza-ikastaroetan, LGTBI+ kolektiboaren errealitatea jasoz eta ikasgelan eta ikastetxean LGTBI+ ikasleen presentzia edo familietan LGTBI+ kideen presentzia lantzeko modua azalduz.

2. Ekintzak egiten dira ikastetxeetan LGTBI+ pertsonen errespetua eta diskriminaziorik eza sustatzeko, bereziki ikasleen gurasoen elkarrean artean.

3. LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzaileak kasuko zuzendaritza nagusiarekin batera parte hartuko du heziketa afektibo-sexualaren curriculum diseinuan Nafarroako ikastetxeetan, bestelakotasunaren ikuspegitik, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateari dagokionez.

4. LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzaileak irakasleentzako eta administrazio edo zerbitzuetako langileentzako prestakuntzako urteko proposamen bat egiten du, bestelakotasun

afektibo-sexual eta generokoaren arloari buruz. Proposamen horrek irakasleen prestakuntza instituzionala jasoko du, bai eta irakasleentzako laguntza- eta prestakuntza-erakundeek eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak garatutakoa ere. Halaber, beste esparru batzuetako prestakuntza proposamenak bultzatu ahalko ditu.

**29. artikulua.** Homofobia, lesbofobia, bifobia eta/edo transfobiagatiko diskriminaziozko portaera eta jarreraren aurrean jarduteko protokoloa.

1. Hezkuntza Departamentuak, LGBTI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailearekin lankidetzan, azterlan bat egiten du homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobia direla-eta gertatzen diren diskriminaziozko portaera eta jarrerei buruz. Azterlan horretatik abiatuta, ikastetxe guztietan jarduteko protokolo bat ezarriko da, ikastetxearen bizikidetasun planaren barruan, sexu-joera, sexu- edo genero-identitate edo genero-adierazpenengatik aurreiritziak eta diskriminazioa dakartzaten jarrera eta portaera homofobiko, lesbofobiko, bifobiko edo/eta transfobikoak direla eta.

2. Aipatu protokoloan jasoko da behar den koordinazioa egotea hezkuntza, osasun eta gizarte-ekintza arloen artean, antzemate eta jardute azkarrak lortzeko bestelakotasunaren aurkako diskriminaziozko egoeren aurrean.

3. Halaber, babes neurriak izanen ditu, aurre egitekoak eskola jazarpenari eta ikasleek, familiek, irakasleek eta ikastetxean zerbitzua ematen duten gainerako pertsonen berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako daukaten eskubidearen aurkako edozein jarduketari. Babes horrek barne hartuko du antolamendu juridikoan dauden salaketa-mekanismoak buruzko informazioa.

Ikastetxeek protokoloa bere errealitate berekiari egokituko diote, arreta eta laguntza egokia bermatzeko ikasleei, irakasleei edo administrazio eta zerbitzuetako langileei, ikastetxean sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazioa jasaten badute.

**30. artikulua.** Unibertsitateko hezkuntza.

1. Unibertsitateak bermatu egiten du errespetatu eta babesten dela ikasleen, irakasleen eta unibertsitate esparruan zerbitzua ematen duen edonoren berdintasunerako eskubidea, eta sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik diskriminaziorik ez izatekoa. Berezi, konpromiso argia hartuko du homofobia, lesbofobia, bifobia edo transfobiagatiko diskriminaziozko jarreraren aurka.

2. Nafarroako Gobernuaren ekimenez, exekutiboak eta Nafarroan kokatutako unibertsitateak,

publikoek zein pribatuek, babeserako, diskriminaziorik ezerako eta sentsibilizaziorako neurriak sustatuko dituzte elkarrekin, unibertsitatearen inguruan. Xede horrekin, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik ez diskriminatzen protokolo bat taxutu behar dute. Protokoloak errealitate horiek jasoko ditu lehendik egon eta horrekin lotuta dauden gaiei buruzko protokoloen barruan.

3. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan, informazio, dibulgazio eta prestakuntzako ekintzak sustatuko ditu irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen artean, diskriminazioari edo jazarpenari buruzkoak, eta ekidin eginen du LGTBI+ pertsonak diskriminatzen dituzten edukien ezarpena.

Halaber, Nafarroako Unibertsitate Publikoak unitate bat edukiko du unibertsitate-campus eta esparru guztietan sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen aniztasunarekiko errespetua bermatzeko behar adina langile, espazio eta baliabide ekonomikoekin. Unitate horrek, bere ekintza-esparruaren barruan, arreta eta laguntza eskainiko die ikasleei, irakasleei edo administrazio eta zerbitzuetako langileei, unibertsitate-erkidagoaren baitan sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik diskriminazioa jasaten badute.

4. Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako Gobernuak, zeinek bere eskumenen esparruan, LGTBI+ errealitateari buruzko azterlanak eta ikerketa-proiektuak egiten laguntzeko neurriak bultzatuko eta hartuko dituzte.

5. Nafarroako Unibertsitate Publikoak sustatuko du bere gradu eta masterren ikasketa-planetan eduki berriak eta egokiak sartzea, sexu- eta genero-bestelakotasunaren arloa lantzeko behar den prestakuntza bermatuko dutenak. Prestakuntza hori aplikatuko da gradu edo master bakoitzaren beharrezko arabera, betiere unibertsitate-autonomia errespetatuta.

6. Nafarroan kokatutako unibertsitateek pertsona transexualen eskubideak bermatu beharko dituzte, beste edozein ikastetxek ezartzen dituen neurri berak ezarriz, 26. artikuluan zehaztu bezala.

## VI. KAPITULUA

### Lan arloko neurriak

**31. artikulua.** LGTBI+ pertsonen tratu eta aukera berdintasunaren eskubidearen integrazioa.

1. Nafarroako Gobernuan lan arloko eskumena duen departamentuak bere politiketan kontuan hartuko du pertsonen sexu-joera, genero-adieraz-

pen eta sexu- edo genero-identitateagatik diskriminatutako ez izateko duten eskubidea.

2. Enpresek LGTBI+ pertsonen tratu eta aukera berdintasuna errespetatu behar dute. Horregatik, neurriak hartuko dituzte lan arloko edozein diskriminazio ekiditeko. Neurri horiek negoziatu egin beharko dira eta, kasua denean, langileen legezko ordezkariekin adostu beharrekoak dira.

3. Gizarte eragileen bitartez sustatuko da hitzarmen kolektiboetan klausulak sar daitezela sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik diskriminazio modu ororen prebentziorako, ezeztatzerako eta zuzenketa-rako.

4. Nafarroako Gobernuak berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako planak borondatez ezar daitezkeen sustatu behar du, gehienbat enpresa txiki eta ertainei begirako suspertze-neurri egoki bidez, zeinek beharrezkoa den laguntza teknikoa barne hartuko baitute.

### **32. artikulua.** Lan arloko neurri eta jarduketak

Nafarroako Gobernuan lan arloko eskumena duen departamentuak neurri egoki eta eraginkorrak hartuko ditu, honako xede hauekin:

a) Administrazio publikoko langileei, funtzionario nahiz lan-kontratadun direla ere, Laneko Ikuskatzailetzaren bidez egiazki eta eraginkorki bermatzea sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik diskriminaziorik eza eta LGTBI+ pertsonen eskubideen erabateko betetzea, kontratazioari eta lan eta okupazio baldintzei dagokienez.

b) Hedapen eta sentsibilizazio jarduketak eta neurriak bultzatzea, enpresetan aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko:

Lehenena. Laneratze-zerbitzu publikoek duten erantzun-gaitasuna egokitzea eta hobetzea.

Bigarrenena. Diru-laguntzetarako deialdi berrietan aukera-berdintasuneko irizpideak sartzea.

Hirugarrena. Sindikatuei eta enpresei pizgarriak ematea, dibulgazio-kanpainak egin ditzaten.

Laugarrena. Gizarte elkarrizketako guneetan sustatzea neurri inklusiboak eta diskriminazioaren aurkako klausulei bultzada eman dakien.

Bosgarrena. Bultzada ematea enpresetan jarra-kodeak eta jarduketa-protokoloak hartzeari, LGTBI+ pertsonen aukera-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde.

c) Sustapena lana egitea berdintasun adierazleak pixkanaka ezar daitezkeen, kontuan hartuko

baitute LGTBI+ pertsonen errealitatea sektore publikoan eta sektore pribatuan, bai eta bereizgarri bat jar dadin ere, berdintasunerako eta diskriminazioerik ezerako politiketan nabarmentzen diren enpresak ezagutaraztekoa.

d) Segurtatu eginen da gizarte bazterketako arriskuan dauden pertsonentzat lehendik dauden enplegarritasun mekanismoetan eta laneratzeplanetan erraztuko dela pertsona transexual edo/eta transgeneroen kontratazioa eta enplegu egonkor eta kalitatezkoa. Aintzat hartuko da bereziki gazte, emakume edo iraupen luzeko langabetua izateagatik diskriminazio-egoera ugari pairatzeko arriskuan dauden pertsonen egoera, eta, oro har, gizarte bazterketako egoeran edo hartarako arriskuan dauden gizon eta emakume transexualena.

e) Enpresetan lan-denbora antolatzeke eta kudeatzeko modu berriak bultzatzea, eta neurriak eta jarduketak garatzea, Nafarroako ehundura produktibo osora bideratuak, lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri izatea errazte aldera, familia-egitatearen heterogeneotasunarekin bat.

f) Laneko ikuskaritzan eta laneko arriskuen prebentzioan ardura duten sektore publiko nahiz pribatuko langileen prestakuntza berezia sustatzea LGTBI+ pertsonen jasan ditzaketen diskriminazioekin lotutako edukietan, eta bestelakotasunaren ezagutzan, sexu-joerari, genero-adierazpenari eta sexu- edo genero-identitateari dagokienez.

g) Laneko ikuskaritzako arduradunak premia-tzea organo eskudunei berri eman diezaieten lan esparruan sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik gertatu edo gertatzen ari diren edo gertatzeko arriskua duten diskriminazio-kasuei dagokienez.

h) Parte-hartzerako eta elkarriketarako guneak bultzatzea eta berariazko dibulgazio-kanpainak sustatzea, LGTBI+ elkarteekin eta kasuko gizarte-eragileekin lankidetzan.

## VII. KAPITULUA

### Gazteria arloko neurriak

#### 33. artikulua. LGTBI+ gazteen babesa.

1. Gazteriaren arloko organo eskudunak aholku-ekintza sustatuko ditu eta bultzatuko du sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatea errespetatu daitezela, esparru horretan landutako jokabide egokiak zabalduz eta bide horretan ekintzak eginez.

2. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak berdintasuna sustatuko du LGTBI+ gazteen eta gaineko herritarren artean; gazte elkarteak sustatuko

ditu haien inklusiorako eta haien eskubideak aldezteko tresna gisa, eta lankidetzan jardunen du LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailearekin Foru Komunitate osoko administrazio publikoei gazteria dela-eta berdintasunarekin lotutako gaiei buruzko aholkua ematen.

3. Gazteentzako bitartekari, begirale eta prestatzaileentzako ikastaroetan, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateari buruzko prestakuntza jasoko da, eta horrek aukera emanen die bestelakotasunean hezteko tresnak, baliabideak eta estrategiak edukitzeko, jazarpena prebenitzeko errespetuan eta berdintasunean oinarrituz hezteko, bestelakotasunen aitor-tza positiboa ere jasoz.

4. Gazte entitate guztiek eta gazteekin lan egiten duten edozein arlotako langileek arreta bereziz sustatu eta errespetatuko dituzte LGTBI+ pertsonen eskubideak.

## VIII. KAPITULUA

### Aisia, kultura eta kirol arloko neurriak

#### 34. artikulua. Kultura inklusiboaren sustapena.

1. Nafarroako Gobernuak aitortzen du sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateari buruzko bestelakotasuna osagai dela kultura inklusibo, anitz eta eskubide-sustatzaile bat eraikitzeke. Arestikoa xede harturik, neurriak abiaraziko dira ikusgaitasuna bermatzeko eta, maila autonomikoan zein tokikoan, LGTBI+ sektoreen produkzio kulturala bultzatzeko, herritar kulturaren, bizikidetzaren eta kultur adierazpenaren eraikuntzaren atal bat den aldetik.

2. Neurriak hartuko dira LGTBI+ errealitateari buruzko arte, kultura, ondare, josteta eta kirol arlo- etako ekimenak eta adierazpenak lagundu eta sustatzeko, haien berezko errepresentazio formak kontuan hartuz.

3. Administrazio publikoek zainduko dute kultura, aisia eta kirolaren honako esparru hauetan sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik diskriminazioerik ezerako jarduerak ere egon daitezten:

a) Kultur lehiaketak, aisiako eta astialdiko jarduerak eta kirol ekitaldiak, bai entitate publikoek bai pribatuek eginak.

b) Memoria historikoa berreskuratzearekin zerkusua duten proiektuak.

c) Haur eta gazteentzako ikuskizun eta produkzio kulturalak.

d) Hezkuntza ez-formaleko baliabide didaktikoak eta dokumentazio-funtsak.



4. Nafarroako Gobernuaren jabetzako liburutegi guztiek LGTBI+ gaietarako funts bibliografiko bat izan beharko dute, edozein kasutan ere giza eskubideei errespetua gordeko diona eta inoiz ere ez dena izaneren sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen aniztasuna aintzatestearen aurkakoa.

5. Liburutegi publikoen kudeaketaren arloko Nafarroako Gobernuko organo eskudunak bermatuko du funts zabal eta espezializatu bat egon dadila herritar guztien eskura, eta hura dela-eta bidezko diren jarraipena eta eguneratzea egingen dira.

6. Txartel edo identifikazio-agiri bat eskatzen den liburutegi eta kultur zentro publiko guztietan, agiri horrek pertsona transexual edo/eta transgeneroen identitatea eta sentitutako sexua islatuko ditu.

**35. artikulua.** Kirola, aisia eta astialdia.

1. Nafarroako Gobernuak sustatu eta begiratu du berdintasun-baldintzetan gauzatu dadin kirolgintza eta jarduera fisikoko zereginetako eta aisiako eta astialdiko jardueretako parte hartzea, inolako diskriminaziorako arrazoi gisa hartu gabe sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatea. Nafarroako Foru Komunitatean egiten diren kirol ekitaldi eta txapelketetan, haietako parte-hartzaile diren pertsona transexual edo/eta transgeneroak ondorio guztietarako haien sexu-identitatearen arabera izanen dira aintzat hartuak. Jarduera horietan beharrezkoa balitz nork bere burua identifikatzeko agiriren bat, edozein kirol federazioren txartela barne, horiek sentitutako identitatea eta izena islatuko dute.

2. Behar diren neurriak hartuko dira, bermatze aldera josteta, kirol, aisia eta astialdiko jarduerak berdintasun-baldintzetan eta LGTBI+ errealitatea errespetatzeko baldintzetan egin daitezen, betiere eragotziz edozein aurreiritzi-, jazarpen- eta indarkeria fisiko edo psikologikoko ekintza.

3. Kirol-, kultur-, aisia- eta astialdi-jarduerak kudeatzen edo ematen dituzten profesionalak parte-hartzaile transexual edo/eta transgeneroei azken horiek hautatutako izenaz zuzenduko zaizkie. Izen hori jarduera guztietan erabiltzeko duten eskubidea errespetatuko da.

Parte-hartzaile transexual edo/eta transgeneroen irudi fisikoa errespetatuko da (eta errespetaraziko da), bai eta haiek beren janzkera libreki hautatzea ere.

Sexuaren arabera bereizitako jarduerak egiten badira, sentitutako sexua hartuko da kontuan.

Baldin eta kirol-, kultur- eta aisia- eta astialdi-jarduerak egiten diren tokietan sexuaren arabera bereizitako instalazioak badaude, nola baitira komunak eta aldagelak, parte-hartzaile transexual edo/eta transgeneroei (gainerakoei bezalaxe) bermatuko zaie sentitutako sexuari dagozkion instalazioetara sartu eta haiek erabiltzea.

4. Neurriak hartuko dira kirol-, aisia- eta astialdi-didaktikan diharduten profesionalen prestakuntza egokia bermatzeko, zeinaren atal bat izanen baita LGTBI+ errealitatea eta kolektibo horren errespetu eta babesa sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko edozein diskriminazioren aurrean. Horretarako, behar den harremana bilatuko da kirola, aisia, astialdia eta gazteria arloaren kudeaketan ordezkartasuna duten entitate publiko zein pribatuekin.

5. Kirol inklusiboa eta ez-segregatua sustatuko da, Nafarroako Foru Komunitatean izaten diren kirol ekitaldietatik adierazpen homofobiko, lesbofobiko, bifobiko edo transfobiko oro desagerrarazirik.

## IX. KAPITULUA

### Garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko neurriak

**36. artikulua.** Garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak lankidetzaren arloan eta bakearen eta giza eskubideen sustapenaren arloan egiten dituen politiken ardatzetan, berariazko bultzada emanen zaie LGTBI+ pertsonen duten bizitzarako, berdintasunerako, askatasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea sustatzen eta defendatzen duten proiektuei, eskubide horiek sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatea direla eta legalki edo sozialki ukatuak edo oztopatuak diren herrialdeetan. Hala ere, pertsonak jazarpen eta errepresalien aurrean babesten dituztenei.

2. Ekintzak bultzatu behar dira sexu-joera, genero-identitate edo genero-adierazpenaren arabera aniztasuna sartzeko immigrazioaren esparruko beste lan arlo bat gehiago bezala. Laguntza ematea sorterrian sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik jazarpena edo errepresaliak jasan dituzten pertsonen.

## X. KAPITULUA

### Komunikazioa

**37. artikulua.** Informazioaren eta komunikazioaren berdintasunezko trataera.

Nafarroako Gobernuak sustapena emanen die, Foru Komunitatearen titulartasunekoak diren



komunikabide guztietan eta Nafarroako administrazioaren diru-laguntzak edo funts publikoak jasozten dituztenetan, LGTBI+ biztanleriaren gizarteratzearen gaineko kontzientziazio, dibulgazio eta transmisioari, eta sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen errespetuari, halako edukiak jendearenganatzuz non lagungarri izanen baitira kolektiboan estereotiporik gabe ikusia izateko eta LGTBI+ jendearen beharrezan eta errealitateak ezagutu eta hedatzeko.

Era berean, jarraipena egingen die sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen aniztasunaren aurkako tratamendua eskaintzen duten informazioei, eta aldiro-aldiro bilduko ditu. Horren ondoriozko txostena Nafarroako Arartekoari, Nafarroako Parlamentuari eta LGTBI+ Berdintasunerako Nafarroako Kontseiluari helaraziko zaie urtero.

**38. artikulua.** Kode deontologikoa.

Nafarroako Gobernuak begiratuko du komunikabideek, autorregulazioaren bidez, kode deontologikoa ezar ditzaten, haietan jasotzeko berdintasunaren errespetua eta sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazioaren debekua, hala informazio eta publizitateko edukietan nola erabilitako hizkeran. Xedapen honek komunikabide guztiak ukituko ditu, baita teknologia berriek ahalbidetutakoak ere.

## **XI. KAPITULUA** **Polizia arloko neurriak**

**39. artikulua.** Polizia-arretarako protokoloa gorroto-delituen aurrean.

Nafarroako Foru Komunitateak, bere eskumenen esparruan, begiratuko du behar diren neurriak har daitezkeen, gorroto-delituen biktimei arreta emateko protokolo bat ezartzekoak Foruzaingoan eta Erkidegoko toki-polizian.

**40. artikulua.** Ordena publikoa eta askatasunaz gabetzea.

Ordena publikoaren eta askatasunaz gabetzearen arloan, Nafarroako Gobernuak honakoa egin beharko du:

a) Behar diren neurriak ezarri, LGTBI+ pertsonen egoitza polizial eta judizialean eta askatasunaz gabetzerako beste esparru batzuetan tratatu eta egonaldi egokiak izan ditzaten bermatzeko.

b) Pertsona transexual edo/eta transgeneroak identitate sentituaren arabera identifikatuak eta miatuak izateko arauak ezarri.

c) Atxilotuta eta espetxeratuta dauden pertsona transexual edo/eta transgeneroei baimentzea eta erraztea, hala polizia-agintearen nola espetxe-agintearen aldetik, hartzen ari diren edozein tratamendu mediko edo hormonalekin jarraitu ahal izatea, bai eta hura hastea ere, hala eskatzen badute.

d) Segurtasun langileentzako hastapeneko prestakuntza etengabe bermatzea, besteak beste toki polizien, foruzainen eta espetxe-langileen kasuan, bestelakotasuna landua izan dadin sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateari dagokienez, eta, halaber, arlo zibilean, administratiboan eta zigor-arloan LGTBI+ pertsonen babeserako dagoen araudia jorra dadin.

e) Berdintasunerako prestakuntza sustatzea askatasunik gabe bizi diren pertsonen artean, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateari dagokienez, Nafarroako Gobernuaren eskumenen esparruan.

## **III. TITULUA**

### **Transgenero, transexualitatea eta intersexualitatea**

**41. artikulua.** Pertsona transexualak, transgeneroak eta pertsona intersexualak.

1. Nafarroako administrazio publikoen esparruan, erregelamenduz baldintzak ezarriko dira, pertsona transexualak, transgeneroak eta intersexualak tratatuak izan daitezkeen beraiek identifikatzen diren sexuaren edo generoaren arabera izenari jarraikiz, adingabeak badira ere.

2. Nafarroako administrazio publikoek begiratuko dute, beren prozedura guztietan, errespetatua izan dadin lege honen onuradun diren pertsonen sexu- edo genero-identitateari buruzko datuen konfidentzialtasuna.

3. Edonola ere, pertsona transexual, transgenero eta intersexualak bermatuko zaie berariazko aholkurako eskubidea; besteak beste, lan-merkatuan sartzeari, tratamendu hormonalei, ebakuntzei edo sexu- eta ugalketa-osasunari dagokienez.

4. Pertsona transexual, transgenero eta intersexualak zilegi izanen dute foru lege honetan ezarritakoari lotzea, diagnostiko psikiatriko edo psikologikorik edo tratamendu medikorik behar izan gabe.

#### IV. TITULUA

### **Pertsona gay, lesbiana, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen benetako berdintasun gauzatua bermatzeko neurriak**

#### I. KAPITULUA

##### **Xedapen orokorrak**

**42. artikulua.** LGTBI+ pertsonen berdintasun-eskubidearen babes judizial eta administratiboa.

LGTBI+ pertsonen berdintasun-eskubidea urratzen denean, babes judizial eta administratiboa sartuko da, kasuaren arabera, diskriminazioa berehala amaitzera zuzendutako neurri guztiak hartzea, kautelazko neurriak hartzea, berehala edo geroago gerta daitezkeen urraketen prebentzioa, eragindako kalte eta galeren ordaina, eta kaltetutako pertsonari bere eskubidearen baliatze osoa lehengoratztea. Kalte morala dagoela ulertuko da diskriminazioa egiaztatu bada; kaltea baloratu da kasuaren inguruabarrak eta benetan eragindako kaltearen larritasuna kontuan hartuz.

**43. artikulua.** LGTBI+ pertsonen berdintasun-eskubidearen defentsarako legitimazioa.

Diskriminazio-egoera baten gaineko iritzia eman behar den prozedura administratiboetan interesdun izaera izanen dute, betiere pertsona ukituaren edo ukituen baimenarekin, giza eskubideen sustapenerako entitate eta elkarteek. Interesduntzat joko dira, halaber, sindikatuak, lanbide-elkarteak eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4. artikuluan agertzen den moduan.

#### II. KAPITULUA

##### **Administrazio arloko neurriak**

**44. artikulua.** Dokumentazioa.

1. Nafarroako administrazio publikoek, beraien eskumenen esparruan, behar diren neurri guztiak hartuko dituzte, dokumentazio administratiboa, foru lege honetan sartzen diren arlo guztietan, bat etor dadin LGTBI+ pertsonen sexu- edo genero-identitatearen aniztasunarekin eta familia-egitatearen heterogeneotasunarekin.

2. Halaber, bermatuko da zerbitzu eta prestazio publikoak jasotzean pertsona transexual, transgenero eta intersexualak izendatuak eta tratatuak izan ahal izatea identifikatzen diren sexuaren edo generoaren arabera (gizona, emakumea zein bestelakoa izan).

3. Nafarroako administrazio publikoek begiratu-koto dute, beren prozedura guztietan, errespetatua izan dadin lege honen onuradun diren pertsonen sexu- edo genero-identitateari buruzko datuen konfidentzialtasuna.

4. Erregelamenduz ezarriko da pertsona transexual edo transgeneroek aukera izan dezatela, Erregistro Zibilean izena edo sexuari buruzko aipamena zuzendu ez badute edo, etorkinak izan eta Nafarroako Foru Komunitatean bizilekua duten pertsona transexual edo transgeneroen kasuan, jatorrizko herrialdean erregistro-aldaketa egiten duten arte, identifikaziorako balioko duen dokumentazio administratibo bat iedukitzeko (bertan, NAN zenbakia, halakorik badute, edo beste identifikazio-agiri ofizial bat agertuko da), eta dokumentazio hori egokia izanen da beren izenari eta sentitutako sexuari dagokienez, hobeki integra daitezten, sufrimendu- edo diskriminazio-egoera saihestuta.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek neurri administratiboak eta beste edonolakoak hartu beharko dituzte bermatzeko parte hartzen duten kasu eta prozedura guztietan aurreko paragrafoan aipatutako dokumentazio administratiboa duten pertsonen beren izenaren eta sentitutako sexuaren arabera tratamendua ematen zaiela.

Aurreko paragrafoan aipatutako dokumentazioa ematearen ondorioz, eta, nolahi ere, pertsona transexual edo transgeneroaren izena eta sentitutako sexua islatzen dituen nortasun agiri nazionala ematen denetik aurrera, tokiko administrazioek eta Nafarroako Foru Komunitatearen berezko ente publikoek behar diren tresna administratibo koordinatuak jarriko dituzte Administrazioaren artxibo, datu-base eta gainerako fitxategietatik pertsonaren aurreko identifikazioaren erreferentzia guztiak desagerrarazteko, edo haien errealitate transexuala ezagutzera eman dezakeen beste edozein datu, salbu eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak daukan pertsonaren historia mediko konfidentzian behar diren aipamenak.

**45. artikulua.** Kontratazio administratiboa eta diru-laguntzak.

1. Zilegi izanen da, klausula administratibo partikularren orrietan, kontratuak esleitzeko lehentasuna ezartzea enpresa jakin batzuek aurkeztutako proposamenen alde, enpresa horiek, beren kaudimen tekniko egiaztatze unean, aukera-berdintasuna lortzeko neurriak garatzen badituzte.

2. Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak diru-laguntza publikoen oinarri arautzaileei gehitu ahalko die entitate eskatzaileek

berdintasuna benetan lortzeko egindako jarduketan gaineko balorazioa.

**46. artikulua.** Administrazio publikoetako langileen prestakuntza

Foru Administrazioaren esparruan, LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailearen bidez prestakuntza emanen da, bermatuko duena honako arlo hauetan zerbitzua ematen duten profesionalen sentsibilizazio egokia eta jardun zuzena: osasuna, hezkuntza, lan mundua, familia eta gizarte zerbitzuak, Foruzaingoa eta tokiko polizia, aisia, kultura eta kirola eta komunikazioa.

**47. artikulua.** Sexu-joeraren, genero-adierazpenaren eta sexu- edo genero-identitatearen gaineko eraginaren ebaluazioa.

1. Nafarroako administrazio publikoek beren eskumenen garapenean sexu-joeraren, genero-adierazpenaren eta sexu- edo genero-identitatearen gaineko eraginaren ebaluazioa sartuko dute, LGTBI+ pertsonen berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioaren integrazioa bermatzeko.

2. Nafarroako Gobernuaren lege- edo erregelamendu-mailako xedapen guztiek ezinbestean txosten bat izan beharko dute, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen aldetik izan dezaketen eraginari buruzkoa, eta erregelamendu bidez zehaztuko da nork egina izanen den.

3. Kasu guztietan, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen gaineko ebaluazio-txosten horrekin batera aurkeztu beharko dira zerikusia duten adierazleak, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen aniztasunari buruzkoak, eta mekanismoak eta neurriak, LGTBI+ pertsonen gaineko balizko eragin negatiboak ahal den neurrian arindu eta neutralizatzen diren desberdintasunak murriztu edo ezabatzen bideratuak, halaber berdintasuna eta sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik diskriminaziorik eza sustatuz.

**48. artikulua.** Administrazioaren jardute-irizpidea.

Foru administrazioak behar diren neurriak hartuko ditu deuseztatze aldera baliabideak eta zerbitzuak erabiltzerakoan sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik gerta daitezkeen edozein diskriminazio, zuzeneko zein zeharkakoa.

### III. KAPITULUA Sarrera ukatzeko eskubidea

**49. artikulua.** Sarrera ukatzeko eskubidea.

1. Sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzeak ezin du inola ere diskriminaziorik ekarri sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen arabera, konstituzio printzipioetan jasota dagoen bezala.

2. Diskriminazioaren debekuak barnean hartzen ditu sartzeko baldintzak, establezimenduetan egotea, eta haietan ematen diren zerbitzuak erabili eta gozatzea. Sartzeko nahiz egoteko baldintzen irizpideak eta murriztapenak jendaurrean paratuko dira, ikusgai dauden afixak sarreretan kokatuta, eta erregelamenduz zehaztuko diren beste modu batzuen bidez.

3. Jendearentzat irekitako establezimendu eta guneen titularrek eta ikuskizun nahiz josteta jarduerak antolatzen dituztenek behar diren neurriak hartuko dituzte honako pertsona hauek bertara sar ez daitezkeen eta, kasua denean, sarrera eragozteko eta bertatik botatzeko betebeharrarekin, indar publikoaren laguntzaz, halakorik behar izanez gero:

a) Beste pertsona batzuk sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik hitzeko nahiz egitezko bortxaz tratatzen dituztenak.

b) Sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik indarkeriara edo diskriminaziora bultzatzen duten ikurrak, jantziak edo objektuak publikoki eramaten eta erakusten dituztenak.

### IV. KAPITULUA Arretarako eta ordainerako eskubidea

**50. artikulua.** Benetako babes integral eta eraginkorra izateko eskubidea.

Nafarroako administrazio publikoek bermatu egin behar diete edozein indarkeria edo diskriminazio jasaten duten edo jasateko arriskua duten LGTBI+ pertsonen benetako babes integral eta eraginkorra berehala jasotzeko eskubidea.

**51. artikulua.** Kontratu-esparruko lege-urraketa.

Zuzenbide osoz deusezak dira negozio juridikoetan sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatean oinarritutako diskriminazio diren edo halakoa sortzen duten xedapen, egintza edo klausulak, eta indarreko legeriaren arabera erantzukizuna erakarri ahal izanen dute.

**52. artikulua.** Arreta eta laguntza juridikorako eskubidea.

Nafarroako administrazio publikoek behar diren mekanismoak ezarri beharko dituzte bermatze aldera LGTBI+ pertsonen eskubidea izatea informazio eta laguntza juridiko espezializatu osoa jasotzeko, beren aurka egindako diskriminazio eta indarkeria mota ezberdinekin loturikoa.

**53. artikulua.** Frogaren kargaren inbertsioa.

1. Administrazio-prozeduretan, alderdi interesdunak sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu-edo genero-identitateagatiko diskriminazioa alegatu eta horri buruzko zantzu funtsatuak aurkezten baditu, diskriminatze-egoera egotzi zaionari dagokio justifikazio objektibo eta arrazoizko bat aurkeztea, behar adina frogatua, hartutako neurrien eta haien proportzionaltasunaren gainekoa.

2. Sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu-edo genero-identitateagatiko diskriminazioa egotearen presuntzioa sor dezaketen egitateak edo zantzuak zuzenbidean onarturiko edozein frogabideren bitartez frogatzen ahal dira, ezertan ukatu gabe erakunde eta zerbitzu publikoen antolamendu-, bizikidetz- edo diziplina-arauen babesean hartutako neurriak eta tramitatzen diren prozedurak.

3. Administrazio-organoak, bere kabuz edo alde batek eskatuta, txostenak edo irizpenak eskatzen ahal dizkie berdintasunaren gaian eskumena duten organoei.

4. Arestiko 1. apartatuan ezarritakoa ez zaie aplikatuko zehapen-prozedura administratiboiei.

## V. KAPITULUA

### Arau-haustek eta zehapenak

**54. artikulua.** Arau-haustea zer den.

1. Arau-hauste administratibo dira, LGTBI+ pertsonen eskubideen esparruan, foru lege honek tipifikatutako egite edo ez-egiteak, Nafarroako Gobernuaren edo Nafarroako toki entitateen eskumen-eremu materialean sartzen badira, baldin eta falta edo delitu ez badira.

2. Ez da diskriminaziotzat joko tratu desberdintasun bat, oinarritzen bada foru lege honetan ezarritako arrazoi-tako batean, xedapen, jokabide, ekintza, irizpide edo praktika baten ondoriozkoa, era objektiboan justifikatzen ahal dena helburu zilegi baten bidez, eta hori lortzeko baliabide egoki, beharrezko eta proportziosko gisa.

3. Lanaren esparruan gertatzen den sexu-joe-raren, sexu- edo genero-identitatearen edo genero-adierazpenaren ondoriozko edozein diskrimina-

zio, jazarpena barne, hala langile-hautaketan edo haien mailaz igotzean nola eginkizunak betetzean, arau-hauste bat da, eta ikertu beharrekoa da, bai eta, zein den kasua, zehatu beharrekoa ere, lan arloko legeriak ezarritako prozeduraren eta tipifikazioaren arabera.

**55. artikulua.** Erantzukizuna.

1. LGTBI+ pertsonen eskubideak urratzearen gaian arau-hauste administratiboaren erantzule izanen dira pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak edo pribatuak, foru lege honetan tipifikatutako egiteak edo ez-egiteak gauzatzeagatik. Hori guztia, ezertan ukatu gabe arlo zibil, penal edo bestelako bateko erantzukizuna eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetak lan arloan balia ditzakeen ikuskapen eta zehapen eskudantziak.

2. Lege honetan jasotako betebeharrak pertsona batek baino gehiagok elkarrekin bete beharrekoak badira, erantzule solidario izanen dira egitiko arau-hausteengatik eta ezartzen diren zehapenen aurrean.

**56. artikulua.** Jurisdikzio penalarikiko baterakotasuna.

1. Ezin zehatuzkoak dira zigor- edo administrazio-arloan zehatuta dauden egintzak, baldin eta subjektua, egintza eta oinarria berak direla ikusten bada.

2. Administrazio-organoak uste badu arau-hausteak delitu edo hutsegite izan daitezkeela, ministerio fiskalari edo eskumena duen organo judizialari horren berri eman dio, eta eten eginen du zehapen-prozedura, harik eta aginte judizialak prozedurari amaiera ematen dion epai irmoa edo ebazpena eman arte, edo ministerio fiskalak jakinarazi arte jarduketak hastearren edo jarraitzearen bidegabetasuna.

3. Deliturik edo hutsegite penalik egin dela jotzen ez bada, edo bestelako ebazpen bat eman bada, prozedura penalarik amaiera ematen diona, administrazioak jarraipena eman dio zehapen-espeditenteari, auzitegietan frogatutzat eman diren egintzetan oinarriturik.

**57. artikulua.** Prozedura.

1. Zehapen-espeditentek abiarazteko, haien instrukzioa egiteko eta haien ebazteko eskumena duten organoek aplikatu behar dute Nafarroako Gobernuaren administrazioaren eskumen-arloei aplikatzekoa zaien zehaprozedura-araudia, honako printzipio hauen arabera: legez-kotasuna, eskumena, atzeraeraginik eza, tipizitatea, erantzukizuna, proportzionaltasuna, preskripzioa eta zehapen bikoitzaren debekua.

2. Baldin eta organo eskudunak, instrukzio-fasean, uste badu zehapen-ahalmena, ustezko jokabide arau-hausleari dagokionez, beste administrazio publiko bati dagokiola, horren berri eman beharko dio administrazio horri, eta dagokion espedientea igorriko dio.

#### **58. artikulua.** Arau-hausteak.

1. Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke, foru lege honetan ezarritakoaren arabera, betiere hutsegite edo delitu ez badira.

2. Ez da arau-hausteen kontrako zehapenik ezarriko, ez bada aurretik instruitu administrazio-prozeduraren arabera dagokien espedientea.

3. Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Adierazpen iraingarriak erabiltzea, edozein bide baliatuz, pertsonen edo haien familien aurka sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik, nahita jardunez.

b) Komunikabideetan, diskurtsoan edo jendau-rreko esku-hartzeetan adierazpen iraingarriak nahita igortzea, indarkeriara bultzatu edota konnotazio homofobikoak, bifobikoak, transfobikoak edo lesbofobikoak dituztenak.

c) Pertsonetikiko isolamendu, arbuio edo gutxiespen publiko, nabarmen eta esplizitua dakarten egintzak egitea, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik.

d) Nafarroako Gobernuak ikerketarako eginiko ikuskapen-lana ez erraztea, edo harekin lankidetzan aritzeari uko partziala egitea.

4. Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Adierazpen iraingarriak erabiltzea, pertsonen edo haien familien aurka sexu-joera, genero-identitate edo genero-adierazpenagatik indarkeria erabiltzera bultzatzen dutenak, nahita eta errepikatuki jardunez.

b) Komunikabideetan, diskurtsoan edo jendau-rreko esku-hartzeetan adierazpen iraingarriak nahita eta errepikatuki igortzea, indarkeriara bultzatu edota konnotazio homofobikoak, bifobikoak, transfobikoak edo lesbofobikoak dituztenak.

c) Pertsonen edo haien familien objektuak edo jabetzak kaltetu edo suntsitzea, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik, betiere egintza horiek izaera penaleko hutsegite edo delitu ez badira.

d) Negozio juridikoetan egintzak egitea edo xedapen edo klausulak inposatzea, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identita-

teagatik diskriminazio direnak edo halakoa sortzen dutenak.

e) Nafarroako Gobernuko ikuskapen-zerbitzuen lanari trabak jarri edo erabateko ezezkua ematea.

f) Edozein izapide administratiboren egitea edo establezimendu edo zerbitzu publiko baterako sarbidea galaraztea edo oztopatzea, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik.

g) Pertsonetikiko isolamendu, arbuio edo gutxiespen publiko eta nabarmen dakarten egintzak egitea, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitateagatik.

h) Lan-praktika diskriminatzaileak ezartzea, bultzatzea edo toleratzea Nafarroako Foru Komunitatearen diru-laguntzak, hobariak edo laguntza publikoak jasotzen dituzten enpresetan.

i) Nafarroako ikastetxeetan testuliburuak eta material didaktikoak prestatzea, erabiltzea edo zabaltzea, zeinetan pertsonak giza duintasun handiagodun edo txikiagodun gisa aurkezten diren, haien sexu-joera, genero-adierazpen edo sexu- eta genero-identitatearen arabera, edo arrazoi hori dela-eta indarkeriara bultzatzen dutenak.

5. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Jokabide oldarkorrak edo jazarpenezkoak hartzea, pertsona baten sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen arabekoak, asmozat izanik edo ondorioztat ekarriko pertsona horren duintasunari eraso egitea, harekiko giro beldurgarria, apalesgarria edo iraingarria sortuz.

b) Pertsona batek jasaten duen edozein erre-presalia edo aurkako tratu, hark diskriminatua ez izateko eta berdintasun printzipioa egiazki bete dadin exijitzeko edozein kexa, erreklamazio, salaketa, demanda edo errekurso aurkeztearen ondorioz.

c) Deialdia egitea ikuskizun edo josteta jardueretarako, publikoak nahiz pribatuak izan, xedetat dutenak gorrotora, indarkeriara edo LGTBI+ pertsonen diskriminaziora bultzatzea.

6. Arau-hauste arinei eta larriei dagokienez, diskriminazio anizkoitzak gradu batez igoko du foru legean aurreikusitako arau-hauste mota, gertatutako egintza bakoitzari dagokionez."

#### **59. artikulua.** Berrerortzea.

Foru lege honetarako, berrerortzea dagoela joko da lege honek aurreikusitako arau-hauste baten erantzulea edo erantzuleak alde aurretik zehatuak izan direnean, ebazpen irmo baten



bidez, izaera bereko arau-hauste bat egiteagatik, bi urteko epean, hura jakinarazi denetik kontatzen hasita.

#### **60. artikulua.** Zehapenak.

1. Arau-hauste arinak 3.000 eurorainoko isunarekin zehatuko dira. Berrerortzerik ez badago, zehapena jartzeko eskumena duen organoak zehapen horren ordeztu behar du idatzi bat ezartzen ahal du.

2. Arau-hauste larriak 3.001 euro eta 20.000 euro bitarteko isunarekin zehatuko dira. Gainera, zehapen osagarri gisa honako hauetako bat edo batzuk ezartzen ahalko dira:

a) Nafarroako Gobernuaren edonolako laguntza publiko jasotzeko debekua, urtebeterainoko iraupenekoa.

b) Administrazioarekin, haren erakunde autonomoekin edo entitate publikoekin kontratuak egiteko debekua, urtebeterainoko iraupenekoa.

3. Arau-hauste oso larriak 20.001 euro eta 45.000 euro bitarteko isunarekin zehatuko dira; gainera, zehapen osagarri gisa honako hauetako bat edo batzuk ezartzen ahalko dira:

a) Nafarroako Gobernuaren edonolako laguntza publiko jasotzeko debekua, bi urterainoko iraupenekoa. Berrerortze- edo erreplikapen-kasuan, debekua bost urterainokoa izan ahalko da.

b) Aldi baterako inhabilitazioa, bi urterainokoa, pertsona fisiko edo juridikoa zerbitzu publikoak ematen dituzten zentro edo zerbitzuen titular izatekoa.

c) Administrazioarekin, haren erakunde autonomoekin edo entitate publikoekin kontratuak egiteko debekua, hiru urterainokoa.

#### **61. artikulua.** Zehapenen mailaketa.

1. Bidezko diren zehapenak zehazteko eta, kasua bada, isunen zenbatekoak eta aldi baterako zehapenen iraupena mailakatzeko, agintari eskudunek proportzionaltasuna gorde behar dute arau-hauste den ekintzaren eta aplikatutako zehapenaren edo zehapenen artean, kontuan hartuz eragindako kaltea, ukitutako pertsonen kopurua, ukitutako eskubidearen garrantzia, eta ukitutako betebeharraren izaera, legeria indardunaren arbera. Honako irizpide hauek bereziki kontuan hartzeak dira:

a) Pertsonen edo ondasunen eragindako arriskuaren edo kalteen izaera eta larritasuna.

b) Arau-haustearen asmoa eta jardun erreplikatuak.

c) Berrerortzea.

d) Diskriminazio anizkoitza eta bigarren mailako biktimizazioa

e) Gertatuaren garrantzi soziala edo eragina.

f) Arau-hausteari lotutako onura.

g) Arau-hausteari sortutako arrisku-egoera iraunkorra edo aldi baterakoa izatea.

h) Nafarroako foru administrazioak aldeztu aurretik egindako ohartarazpen edo errekerimenduen ez-betetzea.

i) Arau-haustea segurtasun indar eta kidegoketako izatea.

j) Arau-haustea ideologia frogatutako homofobiko, lesbofobiko, bifobiko eta/edo transfobikoa duen talde antolatutako baten kide izatea.

k) Eragindako kalteak borondatez konpontzea edo arau-hausteari gaitzartzea ekarri zuten egitateak zuzentzea, baldin eta hala jokatzen bada zehapen-prozeduran behin betiko ebazpena eman aurretik.

2. Zehapenaren helburua izanen da diskriminazioak eragin dituen edo eragin ditzakeen kalteen prebentzioa, disuasioa, konponketa eta zuzenketa. Horrenbestez, aurretik aipatutako gainerako zehapenez gainera, hezkuntzaren arloko eta erkidegoari zerbitzu emateko beste batzuk gehitu ahalko dira.

3. Diru zehapenak ezartzeko eta haien zenbatekoak zehazteko, kontuan hartuko da arau-hausteari arau-hausteari gaitzartzea edo arau-hausteari gaitzartzea ez duela onuragarriagoa izan behar hautsitako arauak betetzea baino.

#### **62. artikulua.** Erantzuleak.

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteen erantzule dira kapitulu honetan ezartzen diren arau-hauste kasuetan, egitez edo ez-egitez, sartzen diren pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak.

2. Erantzukizuna solidarioa izanen da erantzule batzuk egon eta zehazterik ez dagoenean zein izan den, arau-hausteari gaitzartzea, haietako bakoitzaren parte-hartzearen norainokoa.

#### **63. artikulua.** Preskripzioa.

1. Foru lege honetan arin gisa tipifikatutako arau-hausteen preskripzioa sei hilabeteren buruan gertatzen da; larriena, bi urteren buruan; eta oso larriena, hiru urteren buruan.

2. Arau-hausteen preskripzio epea arau-haustea egiten eta biharamunetik hasiko da zenbatzen.

3. Foru lege honen babesean ezarritako zehapenak urtebeteren buruan preskribatuko dira arinak badira; bi urteren buruan, berriz, larriak badira; eta hiru urteren buruan, azkenik, oso larriak badira.

4. Zehapenen preskripzio epea zenbatzen hasiko da zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtzen denean.

## VI. KAPITULUA Prozedura

### 64. artikulua. Eskumena.

1. Titulu honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko, aldez aurretik dagokion zehapen-espeditentea abiarazi beharko da; horren instrukzioa dagokio LGTB+ pertsonen diskriminaziorik ezaren gaian eskumena duen organoari.

2. Arartekoak zehapen-ezarpeneko eskumena duen organoa premiatzen ahal du administrazio publikoen egite edo ez-egite bat dela-eta foru lege hau ez betetzeagatiko espeditenteak abiaraz ditzan.

3. Zehapen-espeditentea izapidetzen den bitartean frogatuko balitz eskumena beste administrazio publiko bati dagokiola, espeditentea igorriko zaio berori izapidetzeko eskumena duen administrazio publikoari.

4. Foru lege honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko eskumena honako hauei dagokie:

a) LGTBI+ politiken organo koordinatzailearen erantzukizuna duen pertsonari, zehapenak arauhauste aringatik ezartzen direnean.

b) Berdintasunaren arloko organismo eskudunaren zuzendaritza-gerentzia duen pertsonari, zehapenak arauhauste larriengatik ezartzen direnean.

c) Berdintasunaren gaian eskumena duen kontseilariari, zehapenak arauhauste oso larriengatik ezartzen direnean.

### 65. artikulua. Zehapen-prozedura.

Zehapen-ahalmena baliatuko da Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz.

### 66. artikulua. Berme estatistikoa.

1. LGTBI+ arloko diskriminazioaren aurkako politika publikoak prestatzeko datu estatistiko ofi-

zialak eskuratu beharko dira estatistika-gaiei buruzko Nafarroako legediaren esparruaren barnean; bereziki, sekretu estatistikoaren gaineko arauak dagokienez, betebeharrak izanik Nafarroan indardun den estatistika-araudian, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudi indardunetan eta aplikatzeko den gainerako araudian ezarritakoa.

2. LGTBI+ politikak koordinatzeko ardura duen organoak aldiro-aldiro prestatu, eskatu eta argitaratu beharko ditu estatistikak eta azterlan kualitatiboak, bereziki honako hauei buruzkoak:

a) LGTBI+ pertsonen aurkako erasoak eta diskriminazioak.

b) Foru lege honi heldurik aurkeztutako salaketak eta LGTBI+ pertsonen aurkako diskriminazioarekin edo indarkeriarekin loturiko delituak direla-eta aurkeztutako salaketa penalak.

c) Foru lege honen xedearekin zerikusia duten administrazio-ebazpen eta epai judizialak, eta horien joera-ildoak; bereziki, zeharkako diskriminazioak daudela egiaztatzen ahal dutenak eta diskriminazioaren aurkako politika publikoetarako neurriak prestatzen laguntzen ahal dutenak.

3. LGTBI+ politikak koordinatzeko ardura duen organoak proposatzen ahal du akordio eta hitzarmenak egitea beste administrazio eta instituzio publiko eta erakunde batzuekin, 2. apartatuan ezarritakoa betetze aldera.

**Lehenbiziko xedapen gehigarria.** Departamentuen arteko koordinazioa.

1. Nafarroako Gobernuak koordinazio-mekanismoak bermatu behar ditu gaia dela-eta eskumena duten Gobernu departamentuen artean, haiek foru lege honetan ezartzen diren printzipioak aplikatu eta politika publikoak aurrera eraman ditzaten.

2. Administrazioaren ikuskapen-jarduketak 1. apartatuan aipatzen diren printzipioetara eta politika publikoetara egokitzeko, departamentu bakoitzean gaiaren arabera eskumena duten organoek azterlan bat egiteari ekin behar diote, jarduera hori egin behar duten funtzionarioei zuzendutako barne-prestakuntzako plan bat taxutzeko tresnamultzoari buruzkoa.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Urteko oroitzakia.

Urtean behin, foru lege honek indarra hartzen duenetik, LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzaileak foru lege honen betetze-maila ebaluatu behar du, bai eta legeak gizartean duen eragina ere. Urtero prestatzen den oroitzakia Nafarroako Parlamentuari igorriko zaio.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Foru legea egokitzea.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau ezinbestez eta nahitaez egokitu beharko du oinarrizko izaera duten estatu esparruko arauetan edozein aldaketa edo bilakaera egonez gero, zuzenean edo zeharka ukitzen dituen LGTBI+ pertsonen eskubideak.

**Laugarren xedapen gehigarria.** LGTBI+ Kontseiluaren sorrera.

LGTBI+ Kontseilua sortuko da sei hilabeteko epean.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailea sortzea.

LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailea sortuko da bederatzita hilabeteko epean.

**Seigarren xedapen gehigarria.** Ekintza plana.

1. Foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean Nafarroako Gobernuak foru legearen garapen orokorrerako ekintza plan bat egin eta onetsiko du. Plan hori partaidetza-prozesu baten bidez diseinatu beharko da.

2. Ekintza planak eduki hauek izanen ditu guxtienez: aplikatzeko epea, lortu nahi diren helburuak, ekintza publikoaren eremu ezberdinetan hartu beharreko neurriak, gauzatzeko aurreikusi diren baliabide ekonomikoak, neurrien mailaz mailako ezarpena, erantzukizunen esleipena eta adierazle sistema batean oinarritutako ebaluazio ekintzak.

**Zazpigarren xedapen gehigarria.** Azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzea.

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen 13. artikulua aldatzen da. Honako eduki hau izanen duen 6. apartatua gehitzen da:

“6. LGTBI+ memoriari buruzko berriazko atal dokumental bat sortuko da.”

**Lehenengo xedapen iragankorra.** Osasun arloko neurriak.

1. Foru lege honetan jasotako osasun-esparruari buruzko neurriak aldeztu aurretik eta pixkanaka ezar daitezten ezertan kendu gabe, aintzat har-

tuko dira Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuan jasotako osasun-jarduketak eta epeak, hori guztia modu koherentean ezarriz.

2. Pertsona transexual eta intersexualei arreta emateko protokoloak gehienez ere sei hilabeteko epean ezarriko dira.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Hezkuntza arlo neurriak.

Foru lege honetan jasotako hezkuntza-esparruari buruzko neurriak aldeztu aurretik eta pixkanaka ezar daitezten ezertan kendu gabe, aintzat hartuko dira Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuan jasotako hezkuntza-jarduketak eta epeak, hori guztia modu koherentean ezarriz, eta ikasturte bateko gehiengo epea egonen da neurri horiek garatzeko. Nolanahi ere neurri horiek guztiz ezarriko dira 2018-19 ikasturterako.

**Xedapen indargabetzailea.**

Indarrak gabe uzten da Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea eta Nafarroako Foru Komunitateko organoek emanak izanik lege honetan xedatuari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, lege hau garatu eta betetzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak emanen ditu.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea eta aurrekontu-eragina.

1. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

2. Baldin eta, erregelamenduzko garapenaren ondorioz, foru lege honetan agertzen diren neurriek gastuak egitera behartzen badute, neurri horiek jasoko diren aurrekontuak izanen dira neurri horien aplikaziorako onetsiriko xedapenek indar hartzen duten ekitaldiaren hurrengoko Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuak.



## **Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa.**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen honako foru lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak: Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa. Proposamen hori 2017ko martxoaren 3ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

#### **1. ZUZENKETA**

##### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proposatzen da "lapurreta" terminoaren ordez "bahiketa" terminoa erabiltzea, pertsonen desagertze bortxatua izendatzeko egokiagozat jotzen baita.

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu erreferentzia hori.

#### **1. BIS ZUZENKETA**

##### **GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU, ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren 1. apartatuaren ondoren beste puntu bat gehitzeko zuzenketa.

«2. 1. artikuluko 1. puntua aldatzen da. Honela geldituko da:

“Foru lege honen xedea da 1936ko uztailaren 18an izan zen kolpe militarren ondorioz Nafarroan erail zituztenen edo errepresio frankistaren biktima izan zirenen eta haur-lapurreten biktima izan

zirenen memoria historikoa leheneratu, aitortu eta oneratzea”».

#### **2. ZUZENKETA**

##### **GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU, ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren 1. puntuaren ondoren beste puntu bat gehitzeko zuzenketa.

«3. 33/2013 Foru Legearen 3. artikulua ten testuari beste paragrafo bat gehitzea.

“Haur-lapurretaren biktimek eskubide berak izanzen dituzte baldin eta argitze- eta bilaketa-prozesuan hobiratzeren bat ireki behar bada”».

#### **3. ZUZENKETA**

##### **GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU, ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarrari beste puntu bat gehitzeko zuzenketa:

«5. 33/2013 Foru Legearen 4. artikuluari –Neuriak– h) letra berria gehitzea.

“h) Diktadura frankistaren errepresioak eragindako haur-lapurreten biktimei laguntzea, bai senitartekoei, bai beren identitate biologikoa bilatzen dutenei”



**4. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
PODEMOS-AHAL DUGU, ETA  
NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Artikulu bakarraren 2. puntua ordezteko proposatzen da. Hona testu berria:

«4. 5. artikuluko 2. apartatua honela geratuko da idatzita:

“Batzordearen osaera erregelamendu bidez zehaztuko da. Nolanahi ere, honako hauen ordezkariak edukiko ditu: Nafarroako Parlamentua, Nafarroako administrazio publikoak, memoria historikoaren arloko elkarteak eta historiaren, auzitegiko medikuntzaren eta arkeologiaren arloekin lotutako entitate akademiko eta profesionalak”».

**5. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
PODEMOS-AHAL DUGU, ETA  
NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren 3. puntua kentzeko zuzenketa.

**5. BIS ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren 3. puntua aldatzeko zuzenketa. 9. bis artikuluko laugarren puntua aldatzeko zuzenketa; azken esaldi hau gehituko da: “Eta eskatzen duten ikertzaile akreditatuei zentsua egiteari buruzko informazio guztiak emanen zaizkie, baldin eta horien idatzizko konpromisoa baldin badago izaera pertsonaleko datuak ez zabaltzeari buruz; eta konpromiso hori urratzen badute, lege-erantzukizunak izanen dituzte”.

Zioak: Ikertzaileei zentsua eskuratzeko aukera ematea.

**6. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
PODEMOS-AHAL DUGU, ETA  
NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Artikulu bakarrari beste puntu bat gehitzeko zuzenketa:

«6. 33/2013 Foru Legearen 8. artikuluko testua aldatu da, eta honako hau izanen du aurrerantzean:

“8. artikulua. ADN bankua

ADN banku bat sortuko da, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuaren menpe egonen dena, non gure erkidegoan lurpetik ateratako gorputzuen hezurren laginak kontserbatuko diren, zein bere ADN sekuentziarekin. Era berean, familiar biktimaren bat izandako edonork, horren barne direla haur-lapurretan biktima izan direnak, bere ADN sekuentziatzeko laginak har diezazkio-ten eskatzen ahalko du, erakunde horretan biltzen diren datuekin alderatzeko. Proba horiek eskaera egin eta hiru hilabeteko epean aztertu beharko dira; horrela, saihestu egin beharko da laginen hondatzea, eta prozesu guztia arindu, bereziki adin-ean aurreratuta dauden pertsonen kasuan”».

**7. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
PODEMOS-AHAL DUGU, ETA  
NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Artikulu bakarrari beste puntu bat gehitzeko zuzenketa:

«7. 13. artikuluko 2. apartatuaren amaieran testu bat gehitzen da:

“Behar diren iturriei, gainera, eskatuko zaizkie Nafarroan 1936ko uztailaren 18tik 1978ra bitartean, edozein zentrotan, estatukoetan nahiz pribatuetan, izan ziren jaiotzei buruzko historia medikoa, haur horien amak Nafarroan gerra zibilean zehar eta frankismoak iraun zuen bitartean egon ziren atxiloteta zentroetan espetxeratutako emakumeak zirenean; halaber, adopzio-liburuak eta adingabeen babesari buruzko espedienteak eskatuko zaizkie”».

**8. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
PODEMOS-AHAL DUGU, ETA  
NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Artikulu bakarrari beste puntu bat gehitzeko zuzenketa:

«8. 33/2013 Foru Legearen 13. artikulua 4. puntuaren amaieran beste paragrafo gehitzen da.

“Halaber, haur lapurtuen zentsu bat eginen da. Zentsu hori ez da publikoa izanen, biltzen dituen datu pertsonalak babestearren, baina interesdunei kopia emanen zaie beraiei buruzko dokumentazioarena. Nafarroako Gobernuak zentsutik heldu diren datu estatistikoak baizik ez du argitara emanen”».

**9. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
PODEMOS-AHAL DUGU, ETA  
NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

“Lehenengo xedapen gehigarritik honako hau testu hau kentzen da:

“Urtebeteko epean”».

**10. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
PODEMOS-AHAL DUGU, ETA  
NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Foru Lege proposamenaren hirugarren xedapen gehigarritik honako testu hau kentzen da: “betebeharra eta”

Testua honela geldituko da: “Aitortu egiten da... daukaten eskubidea”.

**11. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
PODEMOS-AHAL DUGU, ETA  
NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa:

“1979tik 1990era izan diren haur-lapurreten jokaeraren biktimak lege honen onurei atxiki ahal-ko zaizkie, baldin eta egiaztatzen badute lapurreta arau honetan ezarritako kasuen arabera izan dela”.

**12. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko hirugarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa: “Espainian, haurrak modu jarraituan bahitu zituzten hainbat pertsonak eta erakundeak. Auzitegi Nazionalaren Zigor arloko Instrukzioko 5. Epaitegiak hasitako zigor instrukzioaren arabera, Gerra Zibilean eta ondorengo gerraostean 31.000 haur inguru bahitu ziren, atxilotutako errepublikanoen seme-alabak. Haur horiek eta gerra bitartean deserriratu ziren eta haren ondoren berriz herriratu ziren beste batzuk adopzioan eman omen ziren senitarteko biologikoei hori jakin gabe edo horretarako adostasunik eman gabe. Gero, diktaduraren gainerakoan, Nazio Batuen Derrigorrezko edo Nahi Gabeko Desagertzei buruzko Lantaldearen Txostenaren arabera (A/HRC/27/49/Add.1), ehunka haur-lapurreta gertatu ziren ospitaleetako amen aretoetan. Nafarroako Parlamentuko Ikerketa Batzordeak ondorioztatu zuen arren ezin zela frogatu gure erkidegoan haur jaioberrien lapurretarako sare antolatua existitu zenik, egia da zenbait salaketa ikusita pentsa daitekeela delituzko jokaera horiek Nafarroan ere gertatu zirela”.

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu testu hori.

**13. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko bosgarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa: “Exekuzioak eta espetxeratzeak gizonezkoen artean askoz ere gehiagotan gertatu

ziren arren (zehazki, Nafarroan eraildakoen % 98 gizonezkoak izan ziren), emakume errepublikanoek beren generoa zela-eta berariazko errepresio neurri batzuk jasan zituzten (ile-mozketak eta bortxaketak, esate baterako)”

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu testu hori.

#### 14. ZUZENKETA

##### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko zazpigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa: “Espazio horrexetan gertatu ziren jaioberrien bahiketak. Erakunde erlijiosoetako, osasun erakundeetako eta erakunde politiko zein judizialeko pertsonen laguntzarekin, Estatuan milaka haur bereizi ziren beren aitengandik eta amengandik adopzio faltsuan emateko. Horretarako motibazioak batzuetan izan ziren amen edo aiten atxikipen politiko errepublikanoa; beste batzuetan, berriz, arrazoia izan zen guraso horiek ez zirela gaitzat jotzen, garaiko moral kontserbadorearen arabera, jaioberriei familia egoki bat eskaintzeko”

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu testu hori.

#### 15. ZUZENKETA

##### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpenaren bederatzigarren paragrafoa azken lerroa aldatzeko zuzenketa: “Amak, aitak eta seme-alabak bilatzen dituztenen bizipenetan pentsatzea zirraragarria da.”

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu testu hori.

#### 15. BIS ZUZENKETA

##### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpenaren hamaikagarren paragrafoa laugarren lerroa aldatzeko zuzenketa: “eta bahiketak pairatu zituzten gizonak eta emakumeak”

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu testu hori.

#### 16. ZUZENKETA

##### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpenaren hamalagarren paragrafoan, bosgarren lerroan, testua gehitzeko zuzenketa: “Baldin eta horrek ez baditu urratzen datuak babesteari buruzko estatuko legeak”

Zioak: Saihestea foru legeak estatuko legea urra dezan.

#### 17. ZUZENKETA

##### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko hamaseigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa: “Zentzu berean, Nazio Batuen Derrigorrezko edo Nahi Gabeko Desagertzei buruzko Lantaldearen Txostenak (A/HRC/27/49/Add.1), zortzigarren paragrafoan dio ezen “jasotako informazioari jarraituz, litekeena dela batzuetan lapurreta edo bahiketa horiek gertatu izana agintari edo langile publiko batzuk jakinarainean egonda edo/eta haietan parte hartuz”

Zioak: Zorroztasun handiagoz azaltzen du Nazio Batuen txostenaren edukia.

#### 18. ZUZENKETA

##### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko hamazazpigarren paragrafoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: paragrafo horren edukiari buruzko erreferentzia hirugarren paragrafoan ageri da; hori dela eta, errepikakor gertatzen da.

#### 19. ZUZENKETA

##### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpenaren hemezortzigarren paragrafoa azken lerroa aldatzeko zuzenketa: “horrenbestez, eskubide hirukoitza dagoela: amarena, aitarena eta adoptatutako pertsonarena.”

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu testu hori.

#### 20. ZUZENKETA

##### GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU, ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proposatzen da 33/2013 Foru Legearen zioen azalpenaren azken

aurreko paragrafoaren ondoren honako testu hau gehitzea:

Zioen azalpenaren testua aldatzen da. Honako hau izanen da:

“Generoko errepresio bat izan zen, emakumea izateko eredu bakarraren eta ama izateko modu bakarraren inposizioan oinarritua, zeina frankismo moralista hark inposatzen zuen familia tradizionalaren eremuan sartzen baitzen. Testuinguru horretan, haur-lapurreta masiboak egon ziren.

Erakunde erlijiosoen, ospitaleen eta sendagileen laguntzarekin, milaka haur lapurtu zitzaizkien beren amei, adopzio faltsuan emateko, engainu, ezkutatze eta bazterketa bidez, eta lapurreta hori bereziki egin zitzaien politikoki nabarmendutako emakumeei, emakume pobreei, familia ugarikoei, familia oso umilekoei, gabezia kultural edo ekonomikoak zituztenei eta normalean posizio sozial apalekoak ziren emakumeei.”

## **Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa.**

### *HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Mahaiak 2017ko maiatzaren 2an Eledunen Batzarrari entzun ondoren hartutako erabakiaren bidez, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeari esleitu zitzaion irizpen-emate ahalmena 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenaren gainean.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Mahaiaren 2017ko maiatzaren 2ko erabakia aldatzea, zeinaren bidez xedatzen baitzen prozedura arruntari jarraikiz izapidetu zedin 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta foru lege proposamen horri buruzko irizpena emateko ahalmena Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeari esleitzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da giza baliabideak eta baliabide materialak areagotu ditzan, aniztasunarekiko arreta bultzatzen jarraitzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko ekainaren 8an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da giza baliabideak eta baliabide materialak areagotu ditzan, aniztasunarekiko arreta bultzatzen jarraitzeko.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du giza baliabideak eta baliabide materialak areagotu ditzan (bikoizketak, laguntzako irakasleak, ratioen jaitea, eta abar), aniztasunarekiko arreta bultzatzen jarraitzeko; batez ere, komunikazio-hizkuntza jakinik

nahiz jakin gabe sozialki, kulturalki edo/eta ekonomikoki kaltetuta dauden ikasleen, immigrazioaren eta eskolatze berantiarraren portzentaje handiak dituzten ikastetxeetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du beharrezkoak diren antolaketa- eta legegintza-neurri guztiak ezar ditzan, ikastetxe publiko nahiz diru publikoz lagundutako ikastetxe pribatuetan ikasleen banaketa egokia lortze aldera, aniztasunaren, gizarteratzearen eta inklusioaren printzipioei jarraituz, eta saiheste eta zuzentze aldera ikastetxe jakin batzuetan ikasleak kontzentratzea beren ezaugarri pertsonal edo familiarretako edozeinen arabera.”

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Erabakia. Horren bidez, Iruñerriko Mankomunitatea sortu izanaren egokitasuna aitortzen da, eta orobat aitortzen da erabiltzaile guztiei ematen dien zerbitzua.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko ekainaren 8an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Iruñerriko Mankomunitatea sortu izanaren egokitasuna aitortzen da, eta orobat aitortzen da erabiltzaile guztiei ematen dien zerbitzua.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten du Iruñerriko Mankomunitatea sortu izanaren egokitasuna eta, orobat, erabiltzaile guztiei ematen dien zerbitzua.”

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



## **Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da azterlan bat egin dezan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Lanbide Heziketaren arteko harremanak argituko dituen.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko ekainaren 8an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da azterlan bat egin dezan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Lanbide Heziketaren arteko harremanak argituko dituen.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du azterlan bat egin

dezan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Lanbide Heziketaren arteko harremanak argituko dituen.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean jardun dadin bi entitateen arteko koordinazioa hobetzeko, hartara Lanbide Heziketaren garapena ezartzera eta areagotzera bideratutako jarduketa-ildoak ezarriz, kalitatezko lanbide-kualifikazio bat lortzea xede harturik”

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, jakiteko zertan diren hertsadura-teknikak Nafarroako Foru Komunitatean halakoak erabiltzen dituzten zentroetan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko ekainaren 8an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, jakiteko zertan diren hertsadura-teknikak Nafarroako Foru Komunitatean halakoak erabiltzen dituzten zentroetan”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan, jakiteko zertan diren hertsadura-teknikak Nafarroako Foru Komunitateko zentroetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du programa bat ezar dezan Osasun Departamentuaren aldetik, neurri egokiak ezartze aldera honako hauetarako:

a. Erregistroak ezartzea, araututa ez dauden zentroetan, loturak edo euskailuak erabiltzeari

buruzkoak, eta maila ezberdinetan neurriak proposatzea etorkizunari begira haien erabilera ekidin ahal izateko.

b. Programa horren helburuak erdieste aldera nazioartean jadanik erabili diren jardunen mapa bat egitea, dagoeneko eraginkortasuna erakutsi duten neurrien erabilera errazteko.

c) Prestakuntza-programa bat garatzea, azpimarra jarriko duena pertsona erdigunetzat duten harreman terapeutikoko jokabideetan.

d) Aipatu programaren diseinuan erabiltzaileak aintzat hartzea, partaidetzarako bide errealek ezarriz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prozedura bat ezar dezan, hartutako neurriak ebaluatzeko”

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ijitoen herriaren historia eta kultura sar ditzan Nafarroako hezkuntza-curriculumean, eta Espainiako Gobernua, berriz, jaso ditzan bere eskumenen esparruan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko ekainaren 8an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ijitoen herriaren historia eta kultura sar ditzan Nafarroako hezkuntza-curriculumean, eta Espainiako Gobernua, berriz, jaso ditzan bere eskumenen esparruan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ijitoen herriaren historia

eta kultura sar ditzan Nafarroako hezkuntza-curriculumean.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ijitoen herriaren historia eta kultura jaso ditzan hezkuntza-curriculumean, bere eskumenen esparruan.

3. Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi nahi du La Maharí, La Romani, Federación Gaz Kaló edo Secretariado Gitano bezalako entitateek haur eta gazte ijitoen hezkuntza-sustapenaren alde egindako lana.”

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea alda dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko ekainaren 8an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea alda dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea

hiru hilabeteko epean alda dezan, esplizituki ezaritze aldera hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ez dela ordaindu behar balio-gehikuntzarik gertatu ez den eskualdaketetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egokiak diren bideak ezar ditzan, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, zergadunen erreklamazioei ahal den modurik eraginkorrean erantzuteko, prozeduren judizializazioa ekiditeko formulak abian jartzen ahaleginduz.”

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabaki du hezkuntza-erkidegoa, talde parlamentarioak eta Nafarroako Gobernua elkartuko dituen lan-mahai bat eratu dadin, Irakasleen Babeserako Lege bat taxutzeko.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak honako mozio hau aurkeztu zuen: “Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabaki du hezkuntza-erkidegoa, talde parlamentarioak eta Nafarroako Gobernua elkartuko dituen lan-mahai bat eratu dadin, Irakasleen Babeserako Lege bat taxutzeko.”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko ekainaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2017ko ekainaren 6ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitio Hezkuntza Sozialari.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko ekainaren 19an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten dio Hezkuntza Sozialari, herritarren beharrezane eta eskariei erantzuten dien lanbidea baita eta hezkuntzaren bidez aldaketa sozialak eragiten baititu.

2. Osasun Ministerioa eta Gizarte eta Berdintasun Zerbitzuak premiatzen ditu Hezkuntza Sozialaren lanbidea arautzeko lege bat taxutu dezaten.

3. Erabaki hauek Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialari helaraziko zaizkie.”

Iruñean, 2017ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu ETA banda terroristak orain dela 30 urte Hipercoren egindako sarraskia.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko ekainaren 19an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du ETA banda terroristak orain dela 30 urte egindako Hipercoreko sarraskia, zeinean 21 pertsona hil baitzituen (horietako 4, adingabeak), eta 45 pertsona zauritu.

2. Nafarroako Parlamentuaren konpromisoa da ETAREN terrorismoaren biktimen memoria bizirik iraunaraztea eta horien memoriaren, duintasunaren eta justiziaren alde lan egitea.”

Iruñean, 2017ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bizikidetasunarekiko, justiziarekiko eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuarekiko bere konpromiso irmoa adierazten baitu, eta Altsasuko gazteen kasuaren inguruko gertakarien bilakaerarekin kezkatuta dagoela adierazten baitu.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko ekainaren 19an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bizikidetasunarekiko, justiziarekiko eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuarekiko bere konpromiso irmoa adierazten du, zuzenbideko estatu demokratiko baten berezko printzipioak diren aldetik.

2. Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Nafarroako Probintzia Auzitegiak emandako zioak: ez dago gertakariak terrorismo gisa kalifikatzeko zantzurik; hortaz, iragan urriaren 15ean Altsasun gertatutakoaren izapideak egiteko eta epaitzeko eskumena Iruñeko epaitegiarena izan beharko litzateke.

3. Nafarroako Parlamentua kezkatuta dago Altsasuko gazteen kasuaren inguruko gertaeren bilakaera eta auzi horren proportzio eza direla-eta. Hartara, dei egiten die inplikaturik dauden erakunde guztiei, une honetan espetxean dauden hiru

gazteen behin-behineko espetxealdi, isolamendu eta banantze neurriak baliogabetu daitezzen.

4. Nafarroako Parlamentuak Parlamentuko lehendakariari agintzen dio egin beharreko zuzemena egin ditzan, kasu hau dela-eta espetxeratuta dauden gazteak nola eta zer egoeratan dauden jakiteko, hirugarren puntuan adierazitakoa bermatze aldera.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin beharreko zuzemena egin ditzan, arestiko puntuan adierazitako helburu berarekin.

6. Nafarroako Parlamentuak adierazpen instituzional hau igorriko die Estatuko autonomia erkidegoetako parlamentu eta legebiltzarrei eta foru lurraldeetako batzar nagusiei, eta adierazpen honekiko atxikimendua eskatzen die.”

Iruñean, 2017ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baitu Kontuen Ganbera.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko ekainaren 19an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du Kontuen Ganbera, Nafarroako herritarrek berezkoa sentitzen baitute ehunka urte dituen erakunde hori, kontu eta kudeaketa publikoa kontrolatzeko erakundearen sorrerari begira erreferentea dena.

2. Nafarroako Parlamentuak espresuki aitortzen du Nafarroako Kontuen Ganberak egindako lana, herritarrei kontrol politikoa eta segurtasun juridikoa eskaintzeko balio izan duena.

3. Nafarroako Parlamentuak errespeturik erabatekoena adierazten die haren lanari eta jarduketari.”

Iruñean, 2017ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza





